

**Olatzagutiko Udalak Nafarroako Gobernuarekin batera etxebizitzaren gaia mugitu nahi du** / 11

**Maite Beregaña eta Israel Arbizu izan dira lehen Aitzkibil lasterketaren irabazleak** / 18

**JUUL hauteskunde literarioen sari banaketa izan zen asteazkenean Etxarri Aranatzan** / 21

**Euskal Jaiaren mendeurrenean Etxarrik Jose Luis Erdozia Mauleon omendu du** / 8-9

**Iskiza Sakana Klubeko gimnastak hirugarren mailara igo dira Nafarroako Kirol Jokoetan** / 20

**Euskal Herriko II. Elektrotzaranga Lehiaketa irabazi du Altsasuko Elektrokela** / 23



**Sorionekuak euskaltzaleak Iruñera deitu ditu** / 7

N

B

U

S

## Gobernuaren "desastrea"

Sakanako toki erakundeak kexu dira autobus zerbitzu berria ezartzerakoan foru administrazioak kontuan hartu ez dituelako / 12-13



# "Aralar eta Urbasa mendiak ditu; Sakana aberatsa da"

**IBAI IRISARRI SEGOVIA** MENDI TEKNIKARIA

Mendi Ertain Kirol teknikari ikasketak amaitzeko praktikak egin ditu Sakanako Garapen Agentzian eta Uharteko Arakilgo Udalean, mendiari lotutako proiektuak eginez

**Erkuden Ruiz Barroso** UHARTE ARAKIL. Altsasuko Sakana Lanbide Heziketako Institutuan Mendi Ertain Kirol teknikari ikasketak egin ondoren, Ibai Irisarri Segovia tafallarrak praktikak Sakanako Garapen Agentzian eta Uharteko Arakilgo Udalean egin ditu, mendi ibilbideekin zerikusia duten hainbat proiektu aurrera eramaten. Lehenengo aldia da ziklo horretako ikasle batek praktikak garapen agentzian egiten dituela. Esperientzia "interesgarria" izan dela esan du Irisarrik.

**Zertan datza Mendi Ertain Kirol teknikari zikloa?**

Mendiari lotutako hainbat gauza ikasten da. Lehenengo ikasturtea gerora aukera daitezkeen hiru blokeetarako amankomuna da: Sakana, Eskalada eta Mendia. Lehendabiziko ikasturtea egin ondoren, beste hirurak egin ditzakezu. Nik mendi ertaina egitea erabaki nuen. Guztira, bi urte dira. Taldeak txikiak dira: mendiko zikloan zazpi ginen eta eskaladan, beste zazpi.

**Eta zer ikasten da?**

Udako gida izateko prestakuntza ematen dizute. Mendien eta ba-

soan barna taldeak eramatea eta bitartean gauzak erakusten joatea: animaliak, landaredia... Ez da zertan mendietara igo.

**Tafallatik Sakanara ikastera, zergatik?**

Estatu mailan ez dago aukera askorik ziklo hau egiteko, Katalunia edo Madrilera joan behar zara. Ez dakit askoz gehiago dauden.

**Zergatik ikasi nahi zenuen ziklo hori?**

Betidanik mendia gustatu izan zaidalako. Hainbat urte fabrika batean neramatzan lanean, eta hura ez zen bizitza.

**Zer moduz joan dira ikasketak?**

Oso gustura ibili naiz. Irakasleak primerakoak dira, eta interesgarria izan da. Ez nuen inoiz pentsatu beti gustatu izan zaidana egiteagatik irakasle batek nota bat jarriko zidanik.

**Askotan egingo dizute galdera, zer lan aukera edo aukera profesional ditu?**

Duela bi urte inguru Hezkuntza Legea aldatu zuten, eta gure arloan hainbat kompetentzia kendu zituzten. Esaterako, via ferratak egitearena sakanen kurrikulumean jarri dute eta, azkenean,

aukerak edo ibilbideak gutxitu dira. Neguan bakarrik elur raketekin egin ditzakegu irteerak.

**Aurreko legearekin aukera gehiago zeuden?**

Lehen kranpoiekin, eskalada eta goi mendiko zikloa egin genezakeen. Baina banandu zituzten eta orain lehenengo maila orokorraren ondoren mendi ertainekoa egin eta eskalada egin ondoren TD3 goi mailako ziklora egitera pasa zaitezke. Orain pauso gehiago egin behar dira. Eskaladaren bloke espezifikoa egin beharko nuke, esaterako.

**Zer behar da ikasketak hauek egiteko? Edonork egin ditzake?**

Nik uste dut edonork egin ditzakeela, baina proba fisikoak gainditu behar dira.

**Eta nolakoak dira proba horiek?**

Mendien ibiltzeko zaletasuna edo ohitura baduzu, arazorik gabe egiten dira. Lehendabiziko urtean, Uharteko Arakilgo Berrirako km bertikala igo eta jaitsi ginen eta ondoren Aralar-ko santutegiraino igo behar dzen, hamar kiloko motxilarekin eta hiru ordu eta erdian gutxi gorabehera.

**Beraz, mendian esperientzia izan behar duzu.**

Bai. Gero abilezia proba bat egin behar izan genuen arkaitzen artean ibiltzen. Aurreko urtean Aralar-ko zirkuitu batean orientazio proba bat pasatu behar izan genuen. Baliz bat aurkitzen ez bagenuen, ezin genuen hurrengo blokea egin. Gutxieneko jakintza batzuk behar dira.

**Probetarako prestatu zinen?**

Egia esan orientazioa lehendabiziko urtean egin genuen, Urbasan gehienbat. Mapa eta iparrorratzarekin puntu batera joan behar ginela esan eta horrekin moldatu behar. Aurretik mendira joaten nintzen, gustuko nuen; betidanik joan izan naiz Pirinioetara eta beste hainbat menditara.

**Espektatibak bete dira? Horrela izatea espero zenuen?**

Ni ikasten hasi behar nintzen legedia aldatu aurretik. Baina ezin izan nuen sartu justu COVID-19aren garaia zelako eta jende askok eman zuelako izena, eta hautaketa proba modukoo bat egin zuten eta ni kanpoan gelditu nintzen. Orduan, noski, nire espektatibak bese batzuk ziren, aurreko legedia nuen buruan, eta egoerara moldatu behar izan nuen.

**Praktikak Sakanako Garapen Agentzian eta Uharteko Arakilgo Udalean egin dituzu. Zergatik?**

Egia esan, praktikak egin ahal izateko eskaera asko bidali nituen: Kanariar Uharteko enpresetara, Picos de Europako beste

**"SAKANAN IKASI NUEN ESTATU MAILAN EZ DAGOELAKO AUKERA ASKORIK ZIKLO HAU EGITEKO"**

**"DUELA PARE BAT URTE HEZKUNTZA LEGEA ALDATU ZUTEN, ETA KONPETENTZIAK KENDU ZITUZTEN"**

hainbatetara... Bakarrik hiru erantzun jaso nituen, eta denak ezezkoak. Beraz, Jonek, praktiketako tutoreak, hemen garapen agentzia bat dagoela esan zidan eta praktikak hartzen zituztela lehendabiziko urtea izango zela esan zidan, eta etxetik gertu zegoenez eta praktikak derrigor egin behar nituen, eskaera egitea erabaki nuen. Bestela, beste urte bat egon beharko nuke zain bakarrik praktikak egiteko. Esan nuen: "Egin behar ditut, beraz, aurrera".

**Zer moduzko esperientzia izan da?** Desberdina. Beti izan dut buruan gidaria izatea, taldeak eramatea, mendiak igotzea. horrelako gauzak betidanik izan ditut gustuko eta interesgarria izan da hutsetik hasi naizelako. Zeretik prestatu ditut gauzak: aseguruak kontratatu, zerrrendak egin ea nork ematen duen izena, ibilbidea prestatu, trackeatu, pentsatu zeri buruz hitz egingo duan... Dena nik prestatu behar nuen. Ikasitakoa praktikan jarri dut, bai.

**Zein izan da zure lana?**

Uharteko Arakilgo Udalarekin Berrirako km bertikalaren homologazioa prestatu dut. Lau urtetan behin bidea ongi dagoen ikustera joaten dira, markak margotuta eta abar eta horren arabera homologazioa ematen dute. Matrikula bat bezala da, eta ez zuten eman goiko postea, ermitaren ondoan dagoena, zerratu zutelako. Berrirako jarri behar da eta soilan goiko parte guztia markatu gabe dago eta lainoa dagoen egunetan jendeak galtzeko arriskua dauka. Hori da, hain zuzen, praktiketan landu dudana. Uharteko Arakilgo eskolarekin ekainaren 2an San Vicente inguruan irteera bat egin genuen, San Bartolome baselizara eta errotarren zonaldera; errotarriak bertatik ateratzen zituzten eta bat atera gabe dago oraindik eta primeran ikusten da. Sakanako Garapen Agentzian egin ditudan lanak Santiago Bidearekin lotuta daude gehienbat. Bidearen mantentzea eta ekainaren 3an irteera bat egin genuen 27 lagunekin. Garapen agentziak anto-



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok  
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Ibai Irisarri Segovia Mendi Ertain Kirol zikloko ikaslea Uharte Arakilgo Itxasi zonaldean.

latzen zuen hirugarrena zen. Azkenengo zatia egin genuen, Bakaikutik Ziordira doana. Talde handia zen, ez nuen espero hainbeste jende egotea. Eguna lainotua hasi zen, baina gero eguzkia ateratu zen eta kristoren beroarekin bukatu genuen.

#### **Bideen homologazioaren inguruan ere zerbait egin duzu, ezta?**

Bai. Nafarroako Mendi eta Eskaladako federazioarekin ikastaro bat egin genuen. Bernoako GR323an mantenimendua egiteko. Azkenean, 65 kilometro dira eta mantenimendua behar du. Talde bat sortu nahi da, gutxienez hamasei pertsonakoa bikoteka zatitzeko eta bikote bakoitzak hamar kilometro inguru egiteko. Hamar kilometro bi pertsonen artean ez da asko. Zoritxarrez, egun horretan taldea sortzeko ez zen jende nahiko agertu.

#### **Zenbat denbora egon zara praktikak egiten?**

Guztira 200 ordu izan dira eta nik nire modura banatu ditut, lanaren arabera. Apirilaren erdialdean hasi nintzen eta ostiral honetan (gaur) bukatzen ditut. Bi hilabete inguru.

#### **Zenbat aldiz igo zara Beriainera?**

Hiru alditan. Azkenengoa asteazkenean postea eta gelditzen dena egiteko.

#### **Zergatik da garrantzitsua zuen lana?**

Mendira doan jendea edo mendira joan nahi duen jendea ez bada ausartzen galtzeko beldurra duelako edo uste duelako ez dela fisikoki gai, gida bat kontratatu eta berak eramango zaitu ahalik eta hobekien. Segurtasunagatik, gehienbat.

#### **Baina talde baten gida izan aurretik, beste hainbat alor jorratu behar dira, ezta?**

Bai, horren barruan daude ingurumenarekiko errespetua, bideen eta landarearen aberastasuna mantentzea. Azkenean, bide batetik denboraldi batean pasatzen ez bazara, hemen, urte batean landarez beteko da, bide hori galdu egingo da.

#### **Sakana eta Euskal Herria orokorrean herri mendizaleak dira.**

Nafarroan eta Euskal Herrian orokorrean gertatzen dena da txikitatiko joan izan garela mendira gurasoekin-eta, betidanik ezagutu dugumendia. Horregatik, gida bat hartzea ez da aintzat hartzen. Betidanik joan bazara mendira, ezagutzen duzu. Nik ere hala pentsatzen nuen. Baina jende pila bat dago, hirikoak gehienbat, sekula behi bat edo zaldi bat mendian ikusi ez dutenak. **Sakana barnetik ezagutu duzu, zer eskaintzen du Sakanak?**

Lehendik ezagutzen nuen; nahiko ongi ezagutzen dut. Aukera

handiak ditu. Iparraldean Aralar eta hegoaldean Urbasa eta Andia. Aberastasun handia dauka. Niri eskalada gustatzen zaidanez, eskalatzeko eskola pila bat daude. Mendiak igotzeko ere primerakoa da. Arazoa da Urbanen ez dutela uzten probetxu ekonomikorik ateratzen. Bisitarien kopurua ez dago mugatuta, autoarekin edozein tokitara sar daiteke... Baina gu ezin gara gida bezala talde batekin buelta bat ematera joan. Azkenean, gu profesionalak gara eta bada-kigu nondik sar daitekeen eta nondik ez, zer ukitu daitekeen eta zer ez... Azken urte hauetan gertatzen da udako asteburuetan jende asko egoten dela musikarekin, barbakoak egiten eta abar. **Zergatik ez dute uzten?**

Nafarroako Gobernutik dator agindua. Urte askoko tirabirak dira. Aralarren egin daiteke, adibidez. Araudia ez dakit oso ondo, baina institutuarekin bertan praktikak egiteko ere arazo larriak izan zituzten gobernua-rekin, nahiz eta asmoa dirua ateratzea ez izan. .

#### **Eta zer behar du Sakanak?**

Zerbitzuez eta turismoazez dut hainbeste kontrolatzen.

#### **Mendian ibiltzeko aholku batzuk emango dizkiguzu?**

Irteera ongi planifikatu behar da, aukera desberdinak aurreikusit

behar dira, hau da, aukera bakarra ezin da izan Beriainera igotzea, alternatibak prestatu behar dira. . Eguraldia begiratu eta gaur egungo teknologiarekin telefono mugikorrean GPS bat eraman dezakezu, oso lagungarria baita. **Baina GPSak irakurtzen jakin behar da...**

Gaur egungokoekin baduzu lan erdia baino gehiago egina.

### **"ESKALADA BLOKEA EGITEA PENTSATZEN ARI NAIZ, ETA ONDOREN TD3A EGITEKO AUKERA IZANGO DUT"**

### **"GIDA BAT KONTRATATU, ETA BERAK AHALIK ETA HOBEEKIEN ERAMANGO ZAITU MENDITIK"**

### **"EZ ZAIT BURUTIK PASATZEN, EZIN DUT IMAJINATU, NORBAITI MENDIA EZ GUSTATZEA"**

#### **Mendia gustatzen ez zaienendako aholkuak?**

Ez zait burutik pasatzen, ezin dut imajinatu, norbaiti mendia ez gustatzea.

#### **Eta motxilan zer eraman behar da? Zer da oinarrizkoena?**

Aldatzeko elastiko bat, gutxienez, botikina ez dut esango, baina bai gasaren bat zauriren bat eginez gero estaltzeko, ura soberan edukitzea eta janari pixka bat. Eta, nola ez, motxila gogoz betetzea.

#### **Mendi Ertain Kirol teknikari ikasketak gomendatzen dituzu?**

Gomendatzen ditut, baina espero dut jende asko ez apuntatzea, bestela lana kenduko digute. Txantxa da. Bai, gomendatzen dut.

#### **Eta orain zer? Zer egingo duzu?**

Nire ideia zen honetan lan egitea, baina kanpora atera behar zara; Pirinioetara edo Picos de Europa, atzerrira ez bada. Neukan diru guztia agortu dut, orduan nire ideia da diru pixka bat irabaztea berriz eta hurrengo urtean eskaladako zikloa egiten saiatzea. Fisikoki ere prestatu behar naiz. Eta, ondoren, TD3a egiteko aukera izango dut. Ez dut alde batera uzten Sakaneko TD2 blokea ere egitea, azkenean lan aukera pila bat ditu udan: via ferratak eta beste hainbat.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Euskaldunok, irmo!

Aurreko batean, Nafarroako Gobernuak Irurtzunen duen Erregistrora telefonoz deitu nuen, "Erregistrarako hitzordua nahi dut". "Háblame en castellano, si quieres que te atiendan", izan zen telefonoaz bestaldeko erantzun lehor eta autoritarioa. 'Nire eskubideen' aldarrikapenetan hasi gabe, zuzentasun osoz, gaztelaniaz egin nuen eskaera. Egun beretsuetan, Elma Saiz PSNko Iruñeko Udaleko zerrenda buruak ozen esan zuen hark ez ziola bozkarik Asironi emango, Asironen euskarazko haur-eskolak inposatu egin omen zituelako. Halaber, Txibitek, Gobernuko presidente izateko nahian, euskararen inposaketarik ez duela onartuko, berak elkarbizitzaren aldeko egitasmoa sustatzen duela dio.

Alabaina, PSNk hauteskundeetan zabalduetako propaganda, gaztelania hutsez idatzita dago, baita eremu euskaldunetan erabili duena ere! Propagandako puntuetako batean, euskara dela-eta elkarbizitza sustatuko omen du, borondatezkotasuna eta aukera berdintasunak bultzatuz, eta tematuta, euskara independentismoarekin lotzeko.

PSNk, lotsagabeki, zabaltzen duen diskurtsoak erabat eraldatzen du errealitate. Gezurra eta manipulazioa darabiltza. Erdaldun gaztelaniadunak bihurtzen ditu biktima, eta euskaldunak pribilegiatu eta diskriminatzaile. Egiatan, euskarari uko eginda ingelesaren sustatzaile amorratuak dira; bitartean, euskaldunon eskubideak eremu publikoko arlo guztietan gogorki zapalduz, euskaldunak ikusezin eta ezdeusa izan gaitezen ahaleginduz. PSNk harrokeriaz, eta euskara lotsagabeki politizatuz, euskaldunokiko genozidio kultural programatutako politika aplikatzen du Nafarroan. Izan ere, Euskarari uko egitean, euskarafobo eta inbezilak izaten ahal dira; baina haien boterea euskaldunon eskubideak zapaltzeko baliatzen dute. Batzuek alderdi progresistatzat dute; egiatan, euskarafobo eta zapaltzaileak dira.

Bihar, Iruñean, Sorionekuk deituta, Nafar euskaldunon eskubideak aldarrikatzeko mobilizazioa dago.

Nafarroako presidente eta Iruñeko alkate(sa) izendatzeko garaian, datorren legealdia izan bedi Nafar euskaldunon eskubideak bermatzeko benetako oinarriak jarriko dituen; bestela, hobe oposizioan, borrokan.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## OBJEKTIBOTIK



Itsasi Euskaltegia

@ItsasiEuskalteg

Unanu, Dorrao ta Lizarraga! Hau da, Ergoiena!



## ZUZENKETA

Azkeneko zenbakian, 9. orrian, portzentaje bat gaizki eman genuen. Urdiainen udal hauteskundeetan EH Bilduren aldeko 232 boto izan ziren, hau da, %86,25.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675  
GUAIXE

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

### Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

### LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernuak



Udalak udaletxeko solairu bat birmoldatu nahiko luke. ARTXIBOA

# Bikoitza da udal aurrekontua

la 2,6 milioi euroko aurrekontua udalak hainbat inbertsio jaso dituelako hazi da. Fernando Urkia kalea berritza, eskolen eraikina zena zaharberritza eta kiroldegiko klimatizagailu aldatzea dira jasotako inbertsio nagusiak

## ARBIZU

Arbizuko Udalak aurten 2.593.865 euroko aurrekontua izanen du. Joan zen urtean baino 1.328.112 euro gehiago dira. Igoeraz galduta, F. J. Razkin Flores alkateak azaldu duenez, "badaezpada Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsio Planera aurkeztutako lanen aurrekontua sartu genuen. Fernando Urkia kaleko sareak eta zoladura berritza da asmoa. Baina lanak egiteko dirulaguntzarik ez digu eman gobernuak, erreserbako zerrendako lehenengoak gara".

Urte batetik bestera udalaren aurrekontua bikoizteko beste arrazoia eskolak hartu zituen eraikinaren zaharberritza da. Razkinek argitu duenez, "Europako Next Generation funtsetik 427.000 euro jaso. BEZA gehituta, milioi erdia da. Gure asmoa da lanak aurten hastea, 2024ko

irailerako lanak despedituta egon behar baitute".

Udal aurrekontuan, guztira, 1.275.600 euroko balioa duten inbertsioak jaso dira. Kopuru aldetik inbertsio handia da kiroldegiko klimatizagailua berritza: 110.000 euro. Razkinek azaldu duenez, "klimatizagailua jarri zenean kiroldegiaren eraikina txikiagoa zen. Ondoren gimnasioa eta sauna egin ziren. klimatizagailua ez du eraikin guztirako eta zahartu da. Aldatu beharra dago". Foru administrazioaren Tokiko Inbertsio Planera dirulaguntza eskaera

**ORDENANTZAREN ARTIKULUA ALDATUTA ALDE ZAHARREAN EGUZKI PLAKAK JAR DAITEZKE**

aurkeztu zuen udalak eta Nafarroako Gobernuak deialdia ebazti zain daude. Deialdi beraren bidez Arbizuko Udalak udaldegiko solairua birmoldatu nahi luke, "espazioa berrantolatu eta tokia hobe aprobetxatzeko. Dirulaguntza jasoz gero, lanak 2025ean eginen lirateke. Gobernuaren erabakiaren zain gaude".

## Eguzki plakak

Beste alde batetik, Arbizuko Udalaren asmoa da Kattuka haur eskola energetikoki autosufizientea izatea. "Horretarako Kattukako teilatuan eguzki plakak jarriko ditugu. Haur eskolak beharrezko duena hartuko du eta soberan gelditzen den elektrizitatea beste norabait eramaten genuke", zehaztu du Razkinek. 80.000 euro bideratuko dituzte egiteko horretara, eta lanak

dirulaguntzarekin finantzatu dituzte.

Bide batez, alkateak gaztigitu du udalak eguzki energia berriztagarriaren instalazioak arautzen dituen udal ordenantza artikulua bat aldatzea onartu duela. "Orain arte Alde Zaharrean ezin ziren eguzki plakak jarri, orain bai". Salbuespen bakarra Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea erakundeak aitortutako babesa duten eraikinak dira.

Bestalde, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Askatasunez Zehazteko programatik udalak inbertsioetarako nahi bezala erabiltzeko 38.174,40 euro jaso ditu. "Hainbeste inbertsio ditugunez, haietakoren baten finantziatzera bideratuko dugu diru hori", esan du alkateak. Bestetik, basoan garbitzeak egin da, baso aprobetxamendua saltzea aztertzen ari da udala.

## Etxebizitza

Arbizuarren etxebizitza premiei erantzuteko udalak hainbat pauso eman ditu azken lau urtetan. Udala Nasuvinsa enpresa publikoarekin harremanetan jarri

eta hainbat aukera aztertu ondoren erabaki zuen San Joango bidea kalean duen 407,1 m<sup>2</sup>-ko lursaila haren esku utzi zuen, han gazteei zuzendutako alokairurako bost etxebizitza eraikitzeko. Razkinek esan duenez, "lanak urte akaberarako hasiz gero, pozik. Zirriborroa egina dago, baina ordenantzekin bat ez dator eta aldaketak egiteko eskatu genuen". Eraikuntza lanek hemezortzi hilabete iraunen lukete.

Bestetik, Kale Nagusiko 43. zenbakian dagoen etxea, Agonia edo Castejon Itxa, enkante bidez saldu nahi izan zuen, baina ez zen eskaintzarik izan. "Saltzeko asmoarekin segitzen dugu eta jendeak eskaintza egiteko libre utzi dugu. Interesa azaldu dutenen deiak jaso ditugu, baina inork ez du baiezkorik eman. Gutxi gorabehera 150.000 euro balio du".

Azkenik, udal berriak aztertu beharko du Txistor Eguna noiz ospatuko den. Nafarroa Oinez lastailaren hirugarren asteburitik bigarrenera pasatzean bi ospakizunek bat eginen lukete lastailaren 8an.

**AISIALDIKO BEGIRALE  
IKASTARO TRINKOA  
TITULAZIO OFIZIALA  
ETXARRI ARANATZ**

**2023KO UZTAILA**

EKAINAREN 30etik UZTAILAREN 28ra  
goizeko 9:00etatik 14:00etara  
(uztailaren 6tik 9ra izan ezik)

+ info 📞 610257471  
etlurtxintxa@gmail.com

plaza mugatuak- erreserba ezazu zure tokia

60  
-  
%80  

---

12



## Guaixe Fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 60 euro ordaindu eta 48 euro berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.

2022ko ziurtagiria eskatu:

admin@guaixe.eus edo 948 564 275,

Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)



# "Euskararen etorkizuna irudikatu nahi dugu"

**HAIZEA RAMIREZ DE ALDA POZUETA** SORIONEKUAK MANIFESTUKO SINATZAILEA  
Sakanako euskaltzaleak larunbatean Iruñera joatera gonbidatu ditu Sorionekuak dinamikak, egun osorako antolatu duen egitarauan parte hartzera

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Euskararen aldeko manifestua sinatu zuten Nafarroako hainbat eremuetako hemeretzi eragilek ilbeltzean. Haien artean bi sakanadar daude Castillo Suarez Garcia eta Haizea Ramirez de Alda Pozueta. Orditik euskaltzale askoren agendan gordea dago garagartzaroaren 10a, larunbata. Goizeko 11:00etatik aurrera, Iruñeko Bosquecillo parkean tailerrak, puzgarriak, gazteendako jolasak, erraldoien kalejira, topadantzak, kantuz eta haurrentako ikuskizuna izanen dira. 12:00etan Laban dj bermuta iragarri dute. 14:00etan herri bazkaria izanen da eta, azkenik, 17:30ean, herri mobilizazioa Antoniuttitik abiatuko da.

**Zergatik zara Sorionekua?**

Kontua da denok garena Sorionekuak. Irulegiko eskua agertuz geroztik, hainbeste lekutan ikusten den Sorioneku hori ere bada euskararen aldeko dinamika bat, duela hilabete batzuk aurkeztu genuena. Sorionekuak euskararen eta euskaldunon eskubideak errespetatzearen alde egiteko dei bat da. Dinamikak izen hori du eta bertan parte hartzen dugun guztiak ere Sorionekuak gara.

**Sorionekuak zergatik zarete?**

Lehenagotik, hausnarketa batetik, heldu da. Hordago herri ekimen bat da, Nafarroa Garaian duela urte pare bat sortu zena, eta, batez ere, zonifikazioa gainditu edo horretan eragiteko helburua du. Tuteran zonifikazioaren kontrako manifestazioa egin zen udazkenean. Ikusi zuten euskarak bazeukala susperraldirako behar bat Nafarroa Garaian. Hainbat euskaltzalerekin harremanetan jarri ziren eta, horren harira sortu zen Sorionekuak dinamika. Bertan daude Errigorako ordezkariak, Labakoak, AEK-koak, kazetari batzuk, argitaletxeak... Izen hori jarri zitzaien, eta logotipoak ere badu zerikusia Irulegiko eskuarekin.



Dinamikaren ilbeltzeko aurkezpenean izan zen Haizea Ramirez de Alda. UTZITAKOIA

Nafarroako euskaldunok Sorionekuak izan nahi dugula esan nahi du. Euskararendako edo euskaldunondako etorkizun oparora nahi dugu, eta larunbatean hori irudikatu nahi dugu.

**Euskaraz bizi nahia. Errealitateak ertz ugari ditu, argiak eta ilunak.**

Hori da. Argi dago Nafarroan euskaraz bizi nahi dugun batzuk bagaudela, eta oraindik ere ezinezkoa zaigu. Alde batetik, Nafarroako zenbait esparrutan ofizialtasun eza dago. Hizkuntza eskubideei dagokionez, badirudi posta kodeak esaten duela zenbaterainoko eskubideak izanen dituzun. Hori bakarrik hizkuntzaren alorrean gertatzen

**"IKUS DADILA NAFARROAN ZER ANIZTASUN DAGOEN, ZER GOGO DAGOEN EUSKARAZ BIZITZEKO"**

da. Gainera, teoriarik eskubide horiek ditugunean, egunero ikusten dugu ez direla betetzen. Sakanan, esaterako, oraindik ezinezkoa da zenbait administraziozuzen euskaraz hitz egiten joatea. Edo osasun etxera. Euskaraz ikastea ere ez dago jende guztiaren eskura. Oraindik ere

egunerokoan oztopo asko jasotzen ditugu.

**Nafarroako Gobernua eratzeko prozesua abian da. Sorionekuagoak izateko zer eskatzen diozue gobernu berriari?**

Argi dugu legegintzaldi hau ardurak hartzeko legegintzaldi bat izan behar duela, euskaldunok benetan kontuan hartzeko legegintzaldi bat. Uste dugu badela garaia ardura politiko horiek eskatzeko. Bi aukera daudelako. Orain bezala jarraitzea, eta euskaldunok bigarren mailan mantentzea. Edo, bestela, eskubideak herritar guztiei onartzea eta euskarari benetan bere estatusa onartzea, eta gure hizkuntza eskubideak errespetatzea. Uste dugu herritarrok politikoei haien ardura eskatu, exijitu behar diegula, bai.

**Manifestua aurkeztu zenutenean nabarmendu zenuten ez zenutela euskaraz bizitzearen aldekoak erakusteko eguna.**

Esan bezala, argi dago euskaldunok egunerokoan oztopo asko jasaten ditugula. Guretako eguneroko ahalegina da. Horren kontziente izanik ere, gure helburua da euskaraz normaltasunez bizi ahal izatea, konplexurik gabe, euskaldun izateaz harro ateratzea. Eta horrekin lotu nahi dugu larunbatekoa. Izan dadila poztasun edo jai egun bat, eta euskaldun izatearen harrotasuna erakusteko eguna.

**Zergatik da garrantzitsua soriontasun hori kalera ateratzea?**

Ez nuke gutxietsi nahi beharrezkoa den beste salaketa hori, argi baitago ardurak eskatu behar direla; batzuek baitute egoera benetan aldatzeko ardura. Baina egun honi beste izaera bat eman nahi genion. Ikus dadila Nafarroan zer aniztasun dagoen, zer gogo dagoen euskaraz bizitzeko.

Horregatik, dei egin dugu larunbatean eskualde bakoitzekoek beraien bereizgarriak eraman ditzaten Iruñera: jantziak, zapiak, txarangak, inauteriak, dantzak... Sakanatik, esaterako, Altsasuko momotxororen bat egonen da, Irurtzongo mitologia pertsonaiak, kantuz taldeak... Halakoek parte hartuko dute. Ikus dadila Nafarroan zer aniztasun dagoen eta nola irudikatzen dugun Nafarroaren etorkizuna euskaldunok: modu itzaropentsu eta positiboan.

**Manifestuaren aurkezpenean esandakoa da: "herritarren garaia da eta etsitzea ez da aukera bat"**

Etsitzeak ez du askorako balio. Garrantzitsua da herritarrek aktibatzea eta guztiok lema hartzea, eta mugitzea, bai.

**Irulegiko eskua izenean eta irudian, zergatik?**

Alde batetik, esku hori euskararekin, herritarrekin, lotu nahi izan dugu. Nafarroan agertuta, esku horrek argi erakutsi zuen Nafarroa beti euskararen lurraldea izan dela, ez dela batzuek dioten bezala euskara inondik hona etorri. Adierazi nahi genuen: Nafarroa da euskararen lurraldea. Sorionekuak transmititu nahi genuen mezuarekin bat zetorrenez, horregatik hartu genituen hitza eta irudia.

**Euskaraz nafar guztiena da?**

Jakina. Hori da helburua. Gaur-gaurkoz, tamalez, oraindik batzuek gurea heldu oso zaila da, baina guztiok dugu lekua euskararen.


**Denon bada, etorkizuna badu.**

Hori da. Larunbatean euskararen etorkizuna Nafarroan irudikatu nahi dugu.

**Zabalduko den sorionekutasuna kutsagarri bihurtuko da?**

Hala izan dadila. Guk halako egun bat nahi dugu: itzaropentsua, positiboa, jendea poztasunez hartuko duena. Izan dadila zerbaiten hasiera.

  
EGURDIAN  
sutarako egurra  
608 57 03 57

[www.promocionesamayna.com](http://www.promocionesamayna.com)  
  
IRURTZUN BERRI  
948 071 935

  
**Txalaparta**  
TABERNA  
**Taberna**  
948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
ALTSASU

# Etxarrik Erdozia omendu du

Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Euskalkien Lantaldeko kidea, bederatziz liburu ditu argitaratuta eta 20 artikulua aldizkari espezializatuetan. Bertako euskara eta historia ikertu ditu, eta euskalki irakasle ere badabil

## ETXARRI ARANATZ

Maiatzaren 21ean ehun urte bete ziren Etxarri Aranatzek Nafarroako lehen Euskal Jaiak hartu zituela. Urteurrena baliatu nahi izan du Etxarri Aranatzko Udalak Jose Luis Erdozia Mauleon euskaltzain urgazlea omentzeko. Plazan egindako ekitaldian **Silvia Maraño Chasco** alkateak Erdoziak egindako bilketa lana aitortu zuen, bai euskararen lanbidean, bai herriko kontuekin. Eta gogoratu zuen omenduak maite duela hiketan hizketatzea. "Zuk egindako lan izugarriarengatik, herriaren izenean, mila esker. Atzo izan zirenak, gero izango direnen eskutan utzi dituzulako, mila esker. Harribitxiak utzi dituzu gure eskutan. Baina ez lokartu, segi horrela. Oraindik beste hainbeste egin beharra daukazu eta". Alkateak Erdoziari lore sorta eta oroigarria oparitu ondoren, Etorbizuna dantza taldeko dantzariak aureskua dantzatu zioten.

**Erdoziak** jakinarazi zuen lanean segituko duela, "nire zaletasunik handiena delako". Nabarmentu zuenez, "euskara ederra daukagu hemen, oso aberatsa gainera". Erdoziak gogorarazi zuen duela 45 urte hasi zela euskaraz alfabetatzen. "Hasiaran hitz pila bat ikastaroetan ikasten nituela pentsatzen nuen". Baina jabetu zen etxean edo herrian entzunak zituela. "Eta meritutu gutxi. Amaren titititik hasi nintzen euskaraz, eta aitaren eta hiru anai horien kolkotik ere bai. Ni baino zaharragoak dira eta pentsatzen dut besotan izango nindutela".

Omenduak hizkuntzak asko aurreratu duela azpimarratu zuen: "batuak asko lagundu du eta lagundu beharko du oraindik ere. Euskarari, zoritxarrez, erron-

ka zailak etorriko zaizkio oraindik. Hobetzen saiatu beharra dugu. Batez ere erabiliz. Gero eta jende gehiagok daki euskara, baina erabilera ez da maila berdinean igotzen ari. Gure baitan dago euskarari bulkada ematea".

## Euskaltzaindia

Hizkuntzaren akademiaren ize-nean **Sagrario Aleman Astitzek** hartu zuen hitza. Erdozia "egunerokoan euskararen alde egiten duzun lanagatik" zoriondu zuen. Euskaltzainak azaldu zuen duela ehun urteko euskal jaiaren antolatzaileak udala, Nafarroako Diputazioa eta Euskaltzaindia izan zirela. "Helburu argia izan zuten festa hura antolatzean: euskarari eustea, euskararen berrindartzea eta euskara zabaltea". Alemanek azpimarratu zuenez, "gaur egun helburu horiek balio digute, oraindik ez baitugu lortu euskararen berreskurapen osoa".

Euskaltzainak 1923ko testu-gurua ere izan zuen aipagai: "nabaria zen euskararen erabileraren galera. Euskara egiten zen herri batzuetan hizkuntza galdu edo galduxeu zuten, Arakilen gertatu zen bezala. Ikusten zen beheraka zihoala, gero eta lurralde txikiagoa zuela euskarak". Azaldu zuenez, garai hartan euskarak aurrera egitea eragozteko egotzi zieten Altsasuko tren geltokiari eta Olatzagutiko portlandegiari. "Horretaz aparte, gauza franko zeuden tartean: euskararekiko mespretxua, deu-

**ERDOZIAK ESAN ZUEN LANEAN SEGITUKO DUELA, "NIRE ZALETASUNIK HANDIENA DELAKO"**

seztea edo hizkuntzarekiko ematen zen gutxiespena".

Ehun urteren ondoren "gauzak aldatu" direla adierazi zuen. Euskaltzainak nabarmendu zuenez, "geroztik pauso sendoak eman dira euskara berreskuratzeko, euskarari indarra emateko". Euskara batuaren oinarriak 1968an jartzea izan zen haietako bat, "aurrerapauso handia ekarri zuena. Horrek ekarri zuen hango eta hemengo euskaldunak elkarrekin euskaraz aritzeko erraztasunak. Ekarriz euskara idatzia, horrek hizkuntzari galduta zuten prestigioa eman zion. Aldi berean, herriaren batasun bat lortu zen. Ondoren, euskara ordura arte arrotz zen hainbat eremuetan sartu zen: administrazioan, komunikabideetan, irakaskuntzan". Alemanek gaineratu zuenez, euskara batuaren beste lorpen bat izan da haur eta helduen irakaskuntzaren bidez "gero eta jende gehiago hurbiltzea euskarara eta, horren bidez, hiztun berriak lortzea. Gaur egun etxeko transmisioetik baino askoz ere hiztun gehiago irakaskuntzaren bidez heldu dira. Hor ere onura izan dugu". Horregatik euskara ikasten ari diren haur eta helduei eskerrak eman zien, "euskara ikasteko eta hobetzeko egiten duzun ahaleginagatik".

Euskaltzainak ziurtatu zuenez, "euskararen egoera ez dago bere onenean. Lan mundua, aisialdia eta hainbat arlo badira euskarak presentziarik ez duena, edo oso urria duena eta espazioak behar ditu. Esaterako, pantailak. Hori ere irabazi beharra dago. Aurrera goaz, baina oraindik asko falta dugu. Ekin eta jarrai, lana badugu, segi dezagun horrela". Etxarriarrei ere hizkuntzaren erabilera eta transmisioagatik eskerrak eman zizkien.



Etorbizuna dantza taldeko dantzariak aureskua dantzatzen Erdoziari. UTZITAKOIA



Euskaltzaindiako ordezkariak: Andres Iñigo, Castillo Suarez eta Sagrario Aleman.



Onintza Goñik eta Jaxone Mendiolak noketan antzezlan laburra jokatu zuten.



Eneko Lazkoz Martinez bertsotan.





Omendua Euskaltzaindiako, udaleko eta Euskara Batzordeko kideen artean.



Etxarri Aranazko abesbatzak hainbat abesti kantatu zituen.



Ikastolako eta eskolako ikasleek olerki bana errezitatu zuten.



Jende ugari elkartu zen plazan.

### Ekitaldia

Igandekoa udaleko Euskara Batzordeak antolatu zuen eta hura prestatzeko garaian 1923ko egitaraua izan zuten oinarri. Hala, hitzartzeen artean etxarriarren parte hartzea izan zen. Esaterako, Jaxone Mendiola eta Onintza Goñik noketan antzezlan txiki bat jokatu zuten. Horrela, Erdotziak Etxarri Aranatz mendu-erenerako prestatutako antez-lana eta hitano irakasle lana uztartu zituzten. Naroa Ansok irrintzia bota zuen; bertsoa, berri, Eneko Lazkoz Martinezek. Eskolako eta ikastolako ikasleek Jon Maiaren eta Castillo Suarez-er olerki bana irakurri zituzten. Etxarri Aranazko abesbatzak, abesbatza txikiak eta Burundar Txistulariak ere parte hartu zuten. Hiruiek elkarrekin Karlos Sanchez Ekizaren *Iraun eta iraun* obra kantatu zuten, abesbatzaren 50. urteurrenean mustu zena. Partitura hori Etxarri Aranazko zenbait melodia ezagunetan oinarrituta dago, eta igandeko ekitaldian txistulari eta akordeoilarien akonpainamendurako moldaketa mustu zen. Han jasoak daude: *Dantzakia* (Joseba Beltzak jarri zion letra), *Urte berri* doinu zaharra, *Urte berri* doinu berria (Paxiko Urrestarazu) eta *Alabatua* (Gabon kanta).

### Duela 100 urte

Euskaltzaindia 1919an sortu zen eta lehen erabakietako bat izan zen Euskal Herriko eskualdeetan barna Euskal Egunak ospatzea. Haien helburua zen "galtzen ari zen euskarari eustea eta, aldi berean, gure hizkuntza indarberritu eta hedatzea". Lehendabiziko Euskal Eguna Durangon egin zen 1921ean. Etxarri Aranazko Udalak, Nafarroako Diputazioak eta Euskaltzaindiak 1923an Euskal Jaia antolatu zuten 1923ko maiatzaren 21ean. Garaiko prentsaren arabera inguruko ibar eta herrietan euskararen erabileraren galera oso nabaria zela. Egoera harri aurre egiteko antolatzaileek Etxarri Aranatz puntu estrategikotzat jo zuten. Bulkatzaileetako bat Damaso Intza izan zen.

Ospakizunak 09:00etan hasi eta 19:00etan despeditu ziren. Egitarauak hainbat ekitaldi jaso zituen. Alde batetik, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Lizarraga eta Etxarri Aranazko haur, gazte eta helduek beraien herrietako kantak abestu zituzten. Bertsolariak

### Bertsoa

*Euskararen militante ta herritar ondradu. Askori eskerrak ez da euskara oraindik galdu. Bizirauteko borrokan den hizkuntza bat gara gu Handien aldean txiki eta txikian zapaldu. Ta askok diote "euskara bihotzean daramagu". Baina hitz egin ezean horrek zentzurik ba al du? Maitatzea ez da aski zaindu beharra daukagu.*

Eneko Lazkoz Martinez  
Doinua: ETaren su etenetik

eta irrintzilariak ere aritu ziren. Bestalde, zenbait haurrek buruz ikasitako olerkiak errezitatu zituzten. Haietako bat Margarita Mauleon izan zen. Hiru hitzaldi ere izan ziren. Lehenik, Marzelo Garziarenak, Irañetako erreto-reak, hartu zuen hitza. Ondoren go hitzaldia Arturo Campion Jaimebonena izan zen eta, azkenik, Damaso Intza hizketatu zen, azken biak euskaltzainak. Eguneko diru kontuetan Juana Urrutiaren hitzaldia ere aipatzen da.

Bestalde, Damaso Intza aurretik ibilia zen eskoletako ikasleak euskaraz irakurtzera eta idaztera bulkatzen. Duela 100 urteko Euskal Jaian herrietako nes-

ka-mutikoe euskaraz nola irakurtzen eta idazten zuten neurtzeko azterketak egin ziren. Haietan Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Ergoiena, Etxarri Aranatz eta Bakaikuko ikasleek parte hartu zuten. Onenek sari gisa liburuak eta Nafarroako Aurrezki Kutxako kartilla bana jaso zuten. Saritan 520 pezeta (3,12 euro) banatu zituzten. Herrien artean mailarik altuena izan zutenak arbizuarrak izan ziren.

Euskaltzaindiak ospakizuna antolatzen 1.378,30 pezetako (8,28 euro) gastua egin zuen. Gastuen zerrenda horren bidez jakin daiteke txotxongilo emanaldia izan zela, Etxarri Aranazko musikari-ek jo zutela eta herri kantak zituzten orriak banatu zituztela jendeak abestiak kanta zitzen.

Nafarroako Diputazioak antolaketan laguntza emateaz aparte, Lorenzo Oroz eta Ignacio Baleztena diputatuen egun osoko presentziarekin babesa eta bulkada eman zuten. Prentsak aintzat hartu zuen haien presentzia. Eta ospakizunaren ondorengo adierazpenean Euskaltzaindiak go-raipatu zituen.

Etxarri Aranazko alkateak Mar-dilgo Euzko Etxeko lehendakari Arospidetar Jonen eskutitza jaso zuen. Euskal Jaian udala parte hartzeagatik haien atsegina azaldu zion. Resurreccion Maria Azkue euskaltzainburuak esan zuenez, "jai hura hain ederki atera zen", eta udalari bere pres-tutasuna eskertu zion.

### BAKARREKO ETXEA ELKARTEAREN ALOKAIRUA 2023 FESTETAN

Bakaikuko Bakarreko Etxea elkarteak bi lokal alokatzen ditu uztailaren 21etik 25era bitarte ospatuko diren festetan. Alokairua lortzeko baldintzak hurrengoak dira:

1. Espazio BAKOITZAREN ALOKAIRUA 1500€koa izanen da.
2. Bi lokalak alokatzeko izena emateko EPEA EKAINAREN 23An arratsaldeko 17:00etan bukatuko da. Eskaintza elkarteko atean dagoen postontzian sartu beharko da, gutun azal itxi batean hurrengo informazioarekin: Lokal aukera (zulo/ elkarre handia), izen abizenak, telefonoa eta posta elektronikoa.
3. Gutun azalak ekainaren 23ko arratsaldeko 17:00etan irekiko dira elkarteko zuzendaritzan, bertaratzeko aukera dago.
4. Zalantzak argitzeko deitu 660 698 738 telefonora edo bidali posta elektronikoa bakarrekoetxea@gmail.com helbidea.



## KOLABORAZIOA

## Euskara batua, sakandarrez jantzia!

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Ezinbestekoa dugu euskara batua, gure milurteetako hizkuntzak irauin behar badu. Eta eskerrak hizkuntzaren estandarizazio prozesuari hasiera eman eta aurreko mendearen azken laurdenean, bereziki, hauxe egonkortzen joan den. Estandarizazio horri esker dugu gaur egun inoiz euskarak izan duen hiztun potentzial kopururik handiena. Euskaraz hitz egiteko trebetasuna bai, baina zoritxarrez ezin gauza bera esan erabilerari buruz.

Euskara batua egonkorturik, ez hala ere osaturik. Bizi-bizirik dauden hizkuntzak, ez dira inoiz erabat osatzen, etengabeko bilakatzea izaten dute eta gure estandarizatuak, horren urte gutxiko bizitza izanik, tokian tokiko soin(gain)ekoak jantzi behar ditu, praktikoago bezain erakargarriago izateko. Eta horretara abiatuko naiz..

Hizkuntzaren arlo guztietako apaingarriekin jantzi dezakegu gurean euskara batua, aiton-amonek haien ilobekin etenik ez izateko. *Katagorri* hemen aiton-amonek eta *urtxintxa* hauen ilobek eta biak euskara

batukoak. Zergatik horrela? Testu-liburu guztiek eta irakasle askok hala erakutsita. *Aiton-amona* erabili dut neuk ere, baina *aitajaun-amandre* Burundan eta *aittun-amiña* Aranatzan eta Arakilen (euskara batukoak ere, aitona > *aittuna*) erabili beharko nuke.

**Fonetismoak** aipaturik, horietako zenbait, ez dira soilik Sakanara mugatzen eta Nafarrerako ezaugarri dira. Hor ditugu -on amaieran duten gaztelaniako zenbait mailegu: *kamiona, klariona, balkona, balona, kainona...* (kamioi, balkoi...)

Bestela ere, /z/ eta /s/ kontsonante txistukariak ederki asko ahoskatzen jakinagatik Sakanan, Nafarroako euskal hizkeretan bezala, bigarrenaren aldeko apustua egiten da, deklinabideko (posposizio lotuak esaten omen zaio egun) instrumentalaren morfemari dagokionez: *oiñes, etxes etxe, burus ikasi, barres/farres/irris lehertu...*

**Morfologiari erreparatzen badiogu**, aipatu deklinabideko kasu batzuetan, zenbait aditzondorenean eta beste batzuenan, aiton-amonek

modu batean eta ilobek beste batean entzunen ditugu:

Destinatiboan, *amarentzat, lagunarentzat, noarentzat, zuretzat...* / *ama(re)ndako, la(g)una(re)n-dako, no(re)ndako, zu(re)tako...*

Prolatiboan, *medikutzat, alkatetzat, laguntzat...* / *medikutako, alkatetako, lagunetako...*

Inesiboan eta leku genitiboko izen bizidunekikoa ezberdin erabiltzen dute: *lagunarengan daukagu konfidantza / lagunaren baitan, Amarenganako errespetua / amaren baitako.*

Moduzko zenbait aditzondo, Sakana osoan Burundakoan bezala erabiltzen dituzte gazteek, Burundakoak bat egiten duelako hedadura handiko -to (-do) morfema baliatzen duten horiekin: *ondo, txarto, hobeto...* vs *ongi, txarki, hobeki...*

Ehuneko eta hamarreko zenbatzaileak, lehen modu ezberdinean erabiltzen ziren: *bietan ehun* (berrehun), *hiru(re)tan ehun, lauretan ehun, bostetan ehun, seietan ehun, zazpitan ehun, zortzietan ehun, bederatzietan ehun, bietan hoge* (berrogei), *hiruretan hoge* (lauretan hoge).

Eratorpenean ere, -degi (-tegi) eta -di (-ti) atzizkiak fitonimoekin erabiltzeko garaian: *hariztegi* (harizti), *fagadegi* (pagadi), *gaztaindegi* (gaztainadi), *intxaurdegi* (intxaurdi/intxausti), *pinudegi* (pinudi)...

Aditzaren etorkizuneko morfemak bi dira, -en eta -ko (-go), eta lehena gutxi entzuten da: *esanen / esango, eginen / egingo, emanen / emango, hilen / hilko...*

Etorri aditzaren forma trinkoak ez ziren erabiltzen Aranatzan eta Arakilen, 'heldu izan' baizik: *Hi, heldu haiz?* (...bahator?), *Eguraldi txarra heldu da* (...dator)...

**Sintaxia** da ezberdintasun gutxien erakusten duen arloa euskal hizkeren artean, baina hala ere badira bertakotako eman ditzakegun horietako batzuk. Esaldi hautakarietan



(ed)o juntagailua soilik baliatzen dute (ez ala) adin handikoe, galderazkoetan ere bai: *Nola nahi duzu kafesnea, zopekin edo zoparik gabe?*

Baldintzazko mendeko esaldietan, -t(z)era(z) morfema edo menderagailua erabiltzen da: *Jakittias* (Jakiteraz) ez *nuen eginen!* (Jakin banu...).

Moduzkoetan, *ba...* bezala menderagailuaz gain, *kuanto ... -en* eta *bigarren ... ba-* menderagailuak ere erabiltzen ziren: *Hitz egiten du, kuantu berak dena dakien!* (...jakinen balu bezala!), *Kantatu zuen. bigarren Benito Lertxundi balitz!* (...balitz bezala!).

**Lexikoarena** da (hitz soilak, perifrasiak, esamoldeak...) arlorik zabalena eta.

*Katagorri, amiña / amandre* bezalako asko dira testu liburuetatik kanpo geratzen diren euskal hitzak, horietako asko hiztegi batuan badira ere.

Hortxe ditugu, *esate baterako* ('adibidez' erabiliko lukete gazteek), *mustu* (estreinatu), *gaztigatu* (abisatu), *eragotzi* (debekatu), *apote* (aketz), *aketz* (kamuts), *atorra* (alkandora), *maindire* (izara), *bibiro / biboro* (biki), *bideberri* (errepide), *epats / aupats* (korrokada), *murrit(tu)* (eskastu), *bikor* (garau/bihi), *urbeldu/bikortu* (garandu), *gernu-jario* (inkontinentzia), *pixa* (txiza), *kunkun* (apo), *txirrinta* (apeta), *gaztanbera* (mamia), *oinaztura* (tximista), *ostots / jostai* (trumoi), *langar* (sirimiri), *txindila* (dilista), *txitxirio* (garbantzu), *aratxe* (txahal),

*axuri* (arkume), *makur* (oker), *malkor* (arkaitz)...

Ehundaka dira horrelako sinonimoak, Sakanako hizkeretan baliatzen ditugunak, baina testu liburuetan agertzen ez direnak. Lexiko arruntaz gain, asko eta asko ditugu bertako aditz perifrasiak eta esapideak: *beste behin* (beste batean), *atzera berriz* (berriz ere) *goseak/egarriak/hotzak* (garbitzen) *egon* (gosea/egarria/hotza eduki), *Goitik buruok!* (Animo!), *gainazpi egin* (buelta eman zerbaiti), *esportan ura bezala izan* (hitza ez bete), *jatera/edatera eman* (jaten/edaten eman), *X paratua izan* (-en antza eduki), *Lehertuko bada ere!* (nahita nahiez), *lehertzea eduki* (izorratu), *orpo-orpetan eduki* (atzetik eduki), *sokarik gabe loturik egon* (zerbaiten ardura eduki), *Txakurraren ipurdira!* (Popatik hartzera!), *txantxarrik gabe* (neurrik gabe), *txirrinta/onguramina eduki* (desira izan), *ur garbia ez izan* (fidagarria ez izan), *zein bere alde* (bakoitza bere aldetik)...

Ehundaka dira adin handikoen hiztegiak daudenak. Ezin ditugu galtzen utzi. Askok eta askok ditugu jasoak, baina ez baditugu egunerokoan erabiltzen, paperean ihartuko dira. Eskola-ikastolan, lantegian, kalean... testu-liburukoekin batera, hauek erabili behar ditugu eta, horrela, euskara batua bera hazi eta jantziago agertuko da.

## DUELA 25 URTE...



## Argi bidea obretan

Argi Bidea elkarteak Arbizuko herriko etxearen beheko solairuan dago, gazteen egoitza izaten 30 urte zeramatzen. Aspaldi berrikuntzarik egin gabe zeuden gazteak elkartean, eta San Joan festetarako egiten hasi ziren: elektrizitate azpiegitura berri eta sabaiko kapirioen artean kixu-kartoi plakak jarri. Sukaldea, biltegia, beheko sua eta barra zeuden moduan utzi zituzten. 90 bat bazkide zituen Argi Bideak.

# Etxebizitza udalaren lehentasuna

Olatzagutiako Udalak aurten 2.376.993,80 euroko aurrekontua du. Udal kontu horien barruan daude musika eskolako patronatuko aurrekontuko 36.000 euroak eta Erburua Olazti SM enpresa publikorako bideratutako 120.000 euroak

## OLATZAGUTIA

Joseba Vizuete Askargorta alkateak azaldu duenez, "udalaren aurtengo asmoetako bat da Nabusinsa enpresa publikoarekin harremanetan jartzea eta etxebizitzaren gaia mugitzea". Vizuete gogorarazi du etxebizitzaren beharrari, eskaintzari eta eskaerari buruzko azterlan bat egin zutela joan zen urtean. "Jasotako datuekin joanen gara haiengana", azaldu du alkateak. Ikerketa egiteko Olatzagutiko Udalak Nafarroako Gobernuaren 20.000 euroko dirulaguntza izan zuen.

Bestalde, eskolan bi urtekoen gelak segitzeko 14.000 euro bideratuko ditu udalak. "Guraso elkartearekin hitzarmena sinatu dugu eta, horrela, herrian zerbitzua eskaintzen jarraituko dugu". Alkateak jakinarazi du kultur eskaintza zabalarekin segitzeko asmoa dutela, baita Sakanako Mankomunitateko zerbitzuekin elkarlanean aritu ere. Aurreratu du aurten ere parte hartze aurrekontuek 30.000 euroko poltsa izanen dutela, "irailera aurreratu nahi dugu deialdia", argitu du alkateak.

## Plaza, kalea eta frontoia

Olatzagutiko Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu zion Tokiko Inbertsioen Planaren barruan jasotzeko Vicente Argomaniz plazaren zolatzeta. Foru administrazioak eskaera atzera bota zuen. "Lanak aurten egin nahi genituzke. Bizpahiru proiektu landuko ditugu eta jendeak haien artean aukeratzeko parada izanen du. Zolatzetaz aparte, hiri altzariak jarriko dira", azaldu du alkateak. Gogorarazi du oinezkoendako eremua dela plaza eta ibilgailuak ez sartzeko udalak aurki piboteak jarriko dituela.

Herriko hirigintza aldatuko duen beste lan bat egingen du udalak: Arronga plaza eta Kale



Olatzagutiko ikuspegia. ARTXIBOA

## VICENTE ARGOMANIZ PLAZA ZOLATU EDO ARRONGA PLAZA ETA KALE TXIKIA LOTZEKO LANAK EGINEN DIRA

Txikia elkarrekin lotu azken hori luzatuz. Kalearen eta plazaren artean baratza dago eta hura kenduta eraikiko du kalea udalak. Alkateak azaldu duenez, "mugikortasun arazoak izan dira eta horiek saihesteko egingen dira lanak". Horretarako, 25.000 euroko aurrekontua dute.

Joan den urteko parte hartze aurrekontuen bidez olaztiarrek erabaki zuten frontoiko atea aldatzea eta hango koxka kentzea. Horrekin batera bi ate txiki zabaldu ditu udalak. Lan horiek 11.800 euroko aurrekontua izan dute, eta despeditzear dira. Vizuete azaldu duenez, "pilotalekuko atea zabalik utziko dugu. Jendeak errespetatzen badu eta egoki erabiltzen badu, zabalik jarraituko du. Baina hilabete batzuen ondoren aztertuko dugu. Erabilera ona balego zabalik utziko genuke, arazoak baleude

ate automatikoa jartzeko aukera genuke. Ate txikietako batean jarriko litzateke".

## Inbertsioak

Vizuete jakinarazi duenez, "igerilekuan dagoen eraikina

zahartuta gelditu da eta hura berritzeko lanei uda pasa ondoren ekin nahi diegu". Gaineratu duenez, "eraikin irisgarria izatea nahi dugu. Gainera aldageletan gortinen ordeaz ateak jarriko ditugu, dutxak eta komunak berritu..."

Udal eraikinekin segituz, eskola publikoko psikomotrizitate gela berrituko du udal udalak. Lanak 14.000 euroko aurrekontua izanen du. Ikastetxeko berogailu bakoitzean termostatoa jarri zuen joan zen urtean. Argiak aldatzeko dirulaguntza jasotzearen zain dago udala. Bestalde, Sutegi eraikinean komuna aldatzeko 15.000 euro inguru beharko ditu. Kiroldegiko gimnasioko tresneria berritzeko asmoa ere badu udalak, eta horretara 20.000 euro bideratuko ditu.

Arkinorruti industrialdean udalak farolak aldatu ditu. Berriek LED argiekin argizatzen dute industria gunea. "Herriko argiteria publikoan zati txiki bat falta da aldatzeko. Dirulaguntza jaso genuenean 15 urte baino gutxiago zuten farolen aldaketa kanpoan utzi zuen. Udalaren egitekoen artean dago, eta urtero ateratzen da parte hartze aurrekontuen aukeren artean".

## Uholdea

2021eko abenduaren 10eko uholdeek eragindako kalteak konpontzeko, udala 102.000 euroko

balioa duten lanak egiteko da. Inbertsioaren %80 dirulaguntza bidez estaliko du udalak. Egitekoen artean dago dermioko bideen konponketa. Zati batzuk kaskallu edota harearekin konponduko dituzte, besteetan porlanarekin, eta asfaltatuko dituzten bide zatiak ere izanen dira. Zati bakoitza nola konpondu aztertzen ari direla azaldu du alkateak. Konpondu beharreko bideak ibai ondoan daude. Bestetik, Larratxota errekan harri lubeta eraikiko dute. Horrekin batera, hainbat parajetan landaretza bakanduko dutela jakinarazi du. Aldi berean, Olatzagutiko Udalak 31.500 euroko balioa duten basolanak egingen ditu aurten, horiek ere dirulaguntzarekin.

## Koskobilo

Herriaren eta Koskobilo II arkeologia aztarnategiaren arteko ibilbidea egiteko lanak dagoeneko despedituta daude. Erburua kiroldegitik abiatu eta kobaraino eramaten duen ibilbidea osatzeko marka berdeei jarraitu behar zaie. Bidean informazio panelak daude irakurgai. Udalak ez du baztertu homologatutako bide horren barruan herriko beste interes puntu batzuk sartzeta. Bestetik, udalaren asmoa da kobaren gaineko harrobian informazio edo interpretazio espazioa egitea. Horretarako, ordea, harrobia lehengoratu behar da.

**IKASTE TXETIK PODCASTA**

Ostiralean, ekainak 9, 10:30ean Beleixe irradian

1. ATALA

1X

eta astelehenetik aurrera  
**WWW.GUAIXE.EUS**

**beleixe** 107.3 FM

# Gobernuaren autobus zerbitzu berriak aje ugari ditu

Nafarroako Gobernuak autobus garraioan aldaketak Sakanako eragileak kontuan hartu gabe ezarri ditu. Ibarrean mugikortasunaren inguruan egindako lanketak ere gobernuak ez ditu aintzat hartu. Eskaera bidezko zerbitzua eskasa eta beste hainbat gabezia azaleratu dira

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Kolore gorriko ibilgailuak Sakanan zeharkatzen ari dira maiatzaren 4az geroztik, Nafarroako Gobernuak ibarreko garraio sistema berria abiarazi zuenetik. Emakida La Burundesa enpresaren esku gelditu zen. Hainbat aldaketa egin zituen gobernuak eta ondorioz, astean zehar Iruña eta Gasteiz arteko hamaika zerbitzu daude, lehen baino bat gehiago. Larunbatetan sei dira, lehen baino bi gutxiago eta igande eta jai egunetan, berriz, bostetik lau izatera pasa dira.

Arakilgo alkatea da Oihana Olaberria Jaka eta gobernuak martxan jarritako autobus zerbitzua "desastre" hitzarekin definitu du. Zerbitzua martxan jarri ondoren ibarreko alkateen ordezkari gisa Lurralde Kohe-siorako Departamentuko Garraio eta Mugikortasun Jasangarria-

ren zuzendari nagusi Berta Miranda Ordoasekin bildu zen. Olaberriarekin batera, ibarreko ordezkariak Sakanako Garapen Agentziako (SGA) eta Sakanako Enpresen Elkarteko kideek osatu zuten.

Olaberriak azaldu duenez, "zerbitzu integralagoa nahi dugu, sakandarren beharretara egokitzten dena. Autobus zerbitzu ona nahi dugu, gu garelako erabil-tzaileak. Baina gobernuak hura martxan jartzeko udalekin, Sakanako Mankomunitatearekin eta SGArekin harremanetan jartzeko lanik ez du hartu".

Gaineratu duenez, "horrelako desastrea nola egin duten galde-tu genion. Esan zuenez, autobus enpresaren datuak izan dituzte oinarri garraio zerbitzu berria martxan jartzeko, besterik ez. Guk ere badugu premien berri eta guregana ez du jo Nafarroa-

ko Gobernuak". SGAko kudeatzaile Iker Manterola Matxainek azaldu duenez, "laguntza eskaini dugu eta ez dute gurekin kontrastatu. Gainera, azterketak, proposamenak eta epe ertain eta luzerako gomendioak ditugu". Olaberriak nabarmendu duenez, zerbitzuaren diseinua hiriburu-ekin lotura egiteko pentsatuta dago, ez Sakana barruko joan-etorrietarako.

Alkateak gogorarazi du autobus zerbitzu berriko esleipena 5 urterako eman duela gobernuak, "eta aldatzerik ez dagoela esan zuen Mirandak". Manterolak gaineratu duenez, "momentuz, egoerari buelta ematea zaila da. Ahal den guztia egokitzeko ahalgina egiten ari gara". Autobus enpresaren aldetik borondatea dagoela gaineratu du. Bestetik, SGAkoak beste ertz bat utzi du agerian: "Nafarroako Klima Al-



Zerbitzu berriko ordutegia eta ibarra zeharkatzen duen autobusetako bat Altsasun bidaiariak hartu

daketako legeak esaten du mugikortasun plangintzak herrietan egin behar direla".

## Eskaera bidezkoa

Gobernuko kideek eskaera bidezko autobus zerbitzuan aldaketak egiteko aukera zabaldu zuten. "Astelehen, asteazken eta larunbatetan dago, goizean bat eta arratsaldean beste bat. Baina arratsaldekoak egunero ordu desberdin bat du. Satrustegin

autobusean igo eta Arakilen bar-na 45 minutu eman behar dituzu Irurtzunerara iristeko. Gainera, Arakilgo herrien arteko bidaiak ez ditu egiten", azaldu du zerbitzua erabili duen Olaberriak.

Alkateak bere udalerraren ezaugarriak nabarmendu ditu: populazioaren dispersioa eta zahartzea. "Eskaera bidezko benetako zerbitzu bat behar dugu. Osasun etxera odol analisia egiteko, Irurtzungo astearteko azo-

## Herriz herri

### Aizkorbe

Nafarroako Gobernuak autobus zerbitzu berria jartzerakoan ez du kontuan hartu. Aizkorbearrek soilik eskabide bidezko zerbitzua dute. Herritik pasatzen diren beste hiru konpainiek beste herrietara eraman ditzakete, baina ez Irurtzunerara.

### Izurdiaga

Nafarroako Gobernuak Izurdiagako Kontzejuarekin harremanetan jarri zen joan zen urtean. Herrietan jarritako autobus ordutegiak hartzeko zutabea non jarri behar zen galdetu zuten foru administrazioetik. Izurdiagako Kontzejuak autobusendako geltoki bat beharrean bi jartzeko

proposatu zien, eskaera bidezko zerbitzua herritar gehiagorengana iristeko. Kontzejuak proposatu zuen geraleku bat San Joan auzoan jartzea eta bestea geltoki auzoan. Biak saihesbideko errotonden ondoan. Zerbitzua martxan jarri da eta Izurdiagan autobus ordutegien informazioa ematen duen zutaberik ez dago. Hala ere, autobusek gelditzen dute.

Jakina denez, Arakilen eskaera bidezko autobus zerbitzuak arakildarrak Irurtzunerara eramaten ditu han Iruñerako autobusa hartzeko. Izurdiagar askok Irurtzunerara oinez joateko ohitura dute. Are seguruagoa bihurtu den aukera herriko mugara arteko espaloia egin denez geroztik.

### Irurtzun

Bideen bidegurutzea izanik hainbat autobus konpainia bertatik pasatzen dira: La Burundesa, Roncalesa, Leitzarar eta Mugiroarra. Nafarroako Gobernuak ibarreko autobus bidezko garraio publikoan aldaketa egin zuenetik, azken hiru konpainietako autobus gidariak debekatuta dute bidaiariak Irurtzundik Iruñera eramatea, edo alderantziz. Hiru konpainia horietako autobusek Irurtzunen gelditzen segitzen dute, herria helmuga duten bidaiariak uzteko. Edo Iruñera ez den beste herriren batera doazen bidaiariak eramateko, esaterako, Latasa, Lekunberri, Erize edo Añezkarrera. Konpainietako baten arduradunak jakinarazi duenez,

"aldaketa pila nabaritu dugu. Ibilbideko beste geldialdietan baino bidaiari gehiago hartzen genituen Irurtzunen". Beste autobus enpresa batean jendearen burutik pasa dena jakinarazi digu: "Irurtzundik Aizkorbera joatea han egoki zaion orduan Iruñerako autobusa hartzeko". Ordutegi berriarekin Iruña eta Irurtzun arteko zortzi autobus zerbitzu eskaintzen ditu La Burundesak. Hamar dira Irurtzun eta Iruña artekoak. Gainontzeko autobus enpresei dagokienez, Alsaren webgunean jasotakoaren arabera, astegunetan norabide bakoitzean bostetan pasatzen da, larunbatetan hirutan eta igandeetan bitan. Leitzarar astelehenetik larunbatera bitan

pasatzen da norabide bakoitzean. Eta, azkenik, Mugiroarrak astegunetan bina joan-etorri egiten ditu. Beraz, astegunetan Iruñerako edo Irurtzunerako hogei autobus hartu ezinik gelditu dira Irurtzundarrak.

Autobus enpresa bateko ordezkariak azaldu duenez, Europako araudia da indarrean dena. "Baina kontraesana da jendea autoa etxean uzteko eskatzea eta, aldi berean, zerbitzurik gabe gelditzea. Jendea zerbitzua eman behar zaio".

### Ekai eta Satrustegi

Sakana zeharkatzen duten autobus zerbitzuek maiatzaren 4az geroztik ez dute Ekai eta Satrustegiko markesina parean



zen. ARTXIBOA

kara joateko... edozein egin beharretarako. Beste eskualde batzuetan adinaren arabera moldatu dute zerbitzu hori", azaldu du. Jakinik eskaera bidezko autobus zerbitzua aldatzeko aukera dagoela, Arakilgo Udalak kontzejuetako ordezkariekin bilera egin du ordutegi egokienak zein izan daitezkeen aztertzeko. Gainera, ibarreko jubilatuekin hizketatzeko asmoa ere baduela jakinarazi du Olaberriak.

Bestetik, Europako eta Nafarroako laguntzekin Sakanan mugikortasunaren inguruan egindako lanketak foru administrazioak kontuan ez dituela hartu agerian gelditu da. FEDER, Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren dirulaguntza jaso zuen SGAK 761.124 euroko aurrekontua zuen proiektua garatzeko. Iparraldeko eta Euskadiko eragileekin batera landa eremuari dagozkion lau arlo

landu zituzten, tartean mugikortasuna. Izan ere, proiektuko ki-deek eskualde barruko eta eskualde arteko garraio egokitua, landa eremuetako adinekoen erabateko gizarte parte hartzea eta zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko beharra ikusi zuten.

Manterolak esan duenez, "guztiaren garapena egin genuen eta gobernuak ez zigun proba pilotua egiten utzi eskumena berea delako. Ondorioz, planak aldatu eta mugikortasun premiei erantzuteko webgunea eta aplikazio libre sortu genuen: KudeaGO".

#### Fokua zabaldu

Horixe egin nahi izan du Manterolak, eta ez mugatu autobus zerbitzura bakarrik, "garraio beharrak osotasunean hartu behar ditugu". SGAKo kudeatzailerak hor tren sartu du. Azaldu duenez, "ez da gure eskumena, baina tren hori dugu eta bere potentziala baliatu behar da, bai bidaiariendako, bai enpresendako. Biak bulkatu nahi ditugu eta agendan sartu". Jakinarazi duenez, "ibarrean ezarri asmoz Sodenara jotzen duten enpresek merkantzien garraio aukerez ere galdetzen dute. Bertan dauden enpresen artean ere bada interesa". Gaineratu duenez, "zerbitzua eskaini arte ez da beharra edo eskaria sortzen". Gogorazi du Europar Batasuna ere merkantziak trenez garraiatzearen alde egiten ari dela. Manterolak esan duenez, "azpiegitura hori dugu, eta behar dugu. Bere po-

tentziala gauzatu behar da, enpresen lehiakortasunagatik, eta herrien iraunkortasunarengatik".

Bestetik, Sakanan barnako desplazamenduetan lagunduko duen bizikleta ibilbidea ere nabarmendu du. Finantzaioa lortzen ahaleginak egin ondoren, proiektua ondu eta bidea errealitate bihurtzeko pausoak ematen segitzen dutela gaztigatu du.

#### Ibilgailuak

Autobus berriek aurreko aldean bai bidaiariendako sarrerako atearen ondoan ibilbidearen berri ematen duten informazio panelak dituzte. Horrela erraza da bidaiaren noranzkoa zein den jakitea. Barruan, aurreko aldean eta atzeko atearen gainean, bi informazio pantaila daude. Markesina baten parean gelditzean herria eta geltokiaren helbidea zein den azaltzen dira, azken horiek gaztelaniaz. Denbora gutxi irauten du informazioak pantailan. Iruñean eta Altsasun izan ezik, gainontzeko herrietan geltoki bakarra dagoenez, kalearena kendu eta herriaren berri handiago eta denbora tarte luzeagoz eman daiteke. Informazio bera audio bidez ere ematen da. Baina gaztelaniaz bakarrik: entrando en...

Ordutegiak zehatzak dira eta bete egiten dira. Iruñera iritsi eta handik ateratzeko ordutegien artean 20 edo 30 minutuko aldea badago ere, berandu iritsiz gero, gidariak txarteldegira joan eta bueltatu ondoren bidaiariak har-

tu behar dituzte. Behar baino gehiago luzatzen da eta, ondorioz, irteerak atzeratzen dira. Beraz, herrietan denbora gehiago egon behar da zain.

#### Deskontuak

Garraio publikoaren sustatzeko deskontuak indarrean dira eta gobernuak bidaiari txartelaren erdia ordaintzen dute. Horretarako, La Burundesaren aplikazioa telefono mugikorrera deskargatu behar da. Hala ere, deskontu horiek soilik Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranzat, Urdiain edo Olatzagutia eta Iruñea arteko joan-etorrietarako dira. Altsasun kasuan Iruñea, Agurain eta Gasteizerako. Hogei bidaiako abonamenduak dira. Beraz, Sakanan barnako joan-etorriak ez dute inolako dirulaguntzarik. Baina 65 urtetik gorako pertsonak txartelaren prezioan beherapena dute.

#### Informazioa

Ibarreko garraio publikoaren berri jakiteko, autobus eta tren konpainiaren webguneetan sartu behar da. Herrietan jarritako informazio zutabeak aukera egokia izan litezke herri bakoitzeko garraio publikoko zerbitzu guztien berri jasotzeko. Hau da, autobus eta tren ordutegiak, KudeaGo moduko aplikazioa edota taxi zerbitzuaren berri emateko. Informazio zentralizatua eta ofline. Eta zutabe horiek ez badi-ra, toki erakundearen iragarki oholak izan daitezke.

gelditzen. Gobernuaren arrazoia? Geltokiak ez daude herrian. Horregatik, Nafarroako Gobernuak bi herriak eskaera bidezko autobus zerbitzuaren barruan sartu ditu. Bi herrien artean dagoen Zuhatzun autobusa gelditzen da.

#### Egiarreta

Eskaera bidezko zerbitzua astelehen, astearte eta larunbatetan besterik ez dute. Horregatik, egitarretar ugarik Etxarrenera jotzen dute autobusa hartzera.

#### Uharteko Arakil

Iruñeko norabidean doazen autobusak Itxesi kalea hartzen dute eta 90 graduko bihurgunea hartuta Ospitalalde kaletik

autobiara ateratzen dira. Garraio publikoko ibilgailuak kurba hori hartzeko lanak izaten dituzte, eta zenbat eta luzeagoak izan orduan eta gehiago. Udal eraikina inguratzen duen hesia ez jotzeko, maniobra egin beharrean daude gidariak.

#### Bakaiku

Bideberrialde kalean markesina du Bakaikuko Udalak. Baina haren ondoan ez dago beste herrietan jarritako autobus ordutegien berri ematen duen zutabea. Udaletik azaldu dutenez, "legedia betetzen ez duelako ez zuten jarri". Halako zutabeak jartzeko markesinaren inguruak urbanizatuta egon beharko luke. Hau da, "espaloia eginda egon beharko luke, porlana zutabearen

oinarria jartzeko. Aurrekontu handia duen lana litzateke udalarendako".

#### Altsasu

Nafarroako Gobernuak kudeatzen zuen Iruñea eta Gasteiz arteko bidaiarien garraioa. Arabako Foru Aldundiarekin akordioa sinatu ondoren, azken erakunde horrek hartu zuen Lautada eta Gasteiz arteko bidaiarien garraioaren kontzesioaren ardura. Sakanan bezala, Lautadako autobus zerbitzua maiatzaren 4az geroztik berria da. Eskumen aldatetak berarekin ekarri du Altsasu eta Agurain lotzen zituzten autobus zerbitzuak astegunetan zortzi joan-etorri izatetik bakarra izatera pasatzea. Aldameneko eskualdeetara garraio publiko

bidez joateko zailtasuna lehendik handia zen eta orain handitu egin da. Garraio publiko loturak eskasak direlako Goierri eta Lizarraldearekin.

#### Lanbide Heziketa

Ibarreko eragileak ahalegin handia egiten ari dira Sakana Lanbide Heziketa institutuaren eskaintza zabaltzeko eta hura ibararren beharretara egokitzeko. Gradu ertaineko ikasketak egiten ari diren ikasleek garraio publikorako eskubidea dute. Baina autobus zerbitzu berria martxan jarri denetik, Iruñetik Altsasura ikastera etortzen ziren bi ikaslek baja eman dute garraio publikorik eta etortzeko beste modurik ez dutelako. Lehen

Iruñeko autobusa 07:00etan abiatzen zen eta garaiz iristen ziren klasera. Orain hiriburutik 06:00etan ateratzen dira autobusak. SGA ere ahaleginak egiten ari da Aguraindik Altsasura ikastera etortzea nahi lukeen ikasleren batek horretarako autobus ordutegi egokiak izan ditzan.

Manterolak gaztigatu duenez, "garraio eskubidea bermatuta egon behar du matrikulazio garaian, jendeak joan-etorriak egiteko aukerez galdetzen duelako. Eta ez badago, egiten ari garen lan guztiari kalte egiten dio. Hezkuntza Departamentuaren erantzuna da: 'ikasle asko badira, jarriko dugu autobusa'". Departamentuko ordezkariekin bilera izanen dute.



# "Haritzen Ibilbidean sartzea sekulakoa izango da"

**JULIAN CLAVER** ALTSASUKO BTT ZEHARKALDIKO ARDURADUNA

**BTT** Barranka Txirrindularitza Taldeak 450 biker espero ditu igandean 9:00etan hasiko den 26. Altsasuko BTT Zeharkaldirako. Javier Claver guztia koordinatzen ari da

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

26. Altsasuko BTT Zeharkaldi ez lehiakorreko arduradun Julian Claverrek aitortu duenez, "azken egun hauetan lan handia dago aurretik". Nafarroako BTT proba beteranoen 100 boluntario inguru ariko dira lanean.

**Gaur, ekainaren 9a, proban izena emateko azken eguna da.**

Maiatzaren 28ra arte izena eman zutenek kamiseta eta bestelako opariak (Lacturale, Alea, Arbizu hestekiak eta Katealde) ziurtatu zituzten, baina azken egun hauetan betetzen dutenek ez.

**Zenbat txirrindulari espero dituzue?**

450 bikerren bueltan egongo gara uste dugu. Milatik gora izan



Julian Claver, urdinez, Barranka Txirrindularitza Taldeko beste taldekideekin. ARTXIBOA

ditugu, baina gure kopuru idealena joan zen urtekoa da, 700 txirrindulari. Nolanahi ere, kontentu gaude 450ekin, zenbaki polita da. Azkenaldian kirol proba askok, oro har, parte hartze kopuruan behera egin dute. Egutegia gainezka dago, eta jendeak aukeratu beharra du.

**Foru plaza txirrindulariz beteko da.**

Aurten Iortziako plaza irteera eta helmuga izatea nahi genuen, estalpea aprobetxatzeko, baina obrak ez dira bukatu.

**Ibilbidean urtero aldaketaren bat egiten duzue.**

Nobedade gisa Etxarri Aranazko Hariztien Ibilbidean sartuko gara. Sekulakoa izango da, ibilbidearen edertasuna eta ingurune bikaina kontuan hartuta. Zuhaitz zoragarri horiek ikusiko ditugu.

**Aurretik nondik ibiliko zarete?**

Altsasutik Sozarretara joko du ibilbideak, eta bertatik Santaluzia sakanera, San Pedrorra heltzeko. Handik Urdiainera eta Iturmendiko goi alderaino. Ondoren Bakaikura iritsiko da, eta bertatik Etxarri Aranazko harrobira. Ibilbide luzekoak gorago igoko dira ertainekoak baino.

Kontzezio ermitatik Etxarri jaitsiko dira, Andra Mari ikastolako hornidura gunean atsedean hartzeko. Handik igerilekuetara joko dute, Haritzen Ibilbidera. Etxarriko galtzada topatuko dute, Bakaikurekin lotzen dena. Bernoako galtzadaren azpira heltzerakoan, luzekoek Bernoako igoko dute, galtzadatik jaisteko, eta ertainekoek Basoixirantz joko dute, Altsasura.

**Ibilbide ederra, zalantzarik gabe.**

Oso. Luzeak 51-52 km ditu, eta ertainak 42 km, baina askoz ere desnibel gutxiago. Igandean ibilbidea egin genuen eta ezin hobe zegoen, nahiz eta bezperan ekaitza eta kazkabarra bota. Igandeko 25-27 graduko tenperaturak iragartzen dituzte, ikusiko da. Azkarrenak 11:00etan hasiko dira helmugara iristen, eta azkenek lau ordu eta laurden inguru beharko dituzte. Horiak dira onenak, inguru zoragarriaz gehien gozatuko dutenak.

**Proba oso ongi baloratzen dute.**

Gehienek zoriontzen gaituzte, pozik doaz, eta itzultzen dira. Batzuetan okertu gaitetzke, eta halakoetan, hurrengorako zuzentzea, ez dago besterik.



2023ko Irurtzungo Pilota Txapelketako finalistak. UTZITAKOA

# Txapela gazteendako, final oso gogorrean

**PILOTA** XXXI. Irurtzungo Pilota Txapelketan De la Fuente eta Cuairan gailendu ziren Retegi Biren eta Bergeraren aurretik. Bigarren mailako finalean Mikelarena eta Apeztegia faboritoek ez zuten huts egin. Hurrengo hitzordua, Europako Txapelketa

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN

Aurreko larunbatean jokatu ziren XXXI. Irurtzungo Pilota Txapelketako final handiak, frontoia ia beteta zegoela. Giroa aparta zen, irurtzundarrak Trinitate festetan murgilduta baitzeuden.

Bigarren mailako finalean Mikelarena eta Apeztegia ziren faboritoak eta katedrak bete-be-tean asmatu zuen, 12 eta 22 irabazi baitzieten De la Torreri eta Roldani. Lehen mailako finalean azken orduko aldaketa egon zen. Apeztegiaek baja egin zuen, eskuko minarengatik, eta Cuairanek hartu zuen bere tokia. Aingeru De la Fuenterekin (Irurtzun) osatu zuen bikoa, Irurtzun taldeko bi beteranoen kontra aritzeko: Retegi Bi eta Bergera. Final borrokatuan Cuairan eta De la Fuente gazteak gailendu ziren, 22 eta 16. "Final oso gogorra izan zen. Estua. Azkenean gazteak gailendu ziren, sekulako ikuskizuna eskainita" azaldu du Irurtzun klubeko koordinatzaile Miguel Berazak.

**Europako Kopa**

Irurtzunek ez du Herrien Arteko Txapelketan aurrera egin, bere

multzoan hirugarren sailkatu eta gero. Bestalde, gogoratu beharra dugu Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketako taldekako ligaxkan Irurtzun hirugarren sailkatu zela.

Irurtzungo Klubak parte hartuko duen hurrengo txapelketa garrantzitsua Europako Kopa izango da, hilabete bukaeran Iscarren (Valladolid) jokatu dena. Irurtzunek klub gisa hartuko du parte, lau pilotariekin, binakako txapelketan eta buruz burukoan parte hartuko baitu. "Oberena eta gu gara bi txapelketatan parte hartuko dugun klub bakarrak, gainontzeko klubak batean edo bestean ariko baitira. Oraindik ez dakigu zein pilotari eramango ditugun, aurrerago ikusiko dugu, baina gure pilotariak oso gogotsu daude. Klub gisa, Espainiako Txapelketan eta halakoetan parte hartzea esfortzu handia da guretzeko, maila ekonomikoan bereziki, baina gure pilotariei halako aukerak eman behar dizkiegu, aurrera egin dezaten" zehaztu du Berazak. Ekainaren 30ean finalerdiak jokatu dira, eta uztailaren 1ean, finalak.

# Arbizu eta Beregaña, lehen Aitzkibil txapeldunak

**ATLETISMOA** Urdiainen hasi eta despeditu zen lasterketan erraz gailendu ziren bi korrikalari sakandarrak. Lehenengoz antolatutako proba laburra Aritz Etxebarriak eta Ihintza Nuñezek irabazi zuten

## URDIAIN

Larunbatean ekaitzak izan ziren nagusi –Etxarri Aranzako eskola mailako txirrindularitza proba bertan behera utzi behar izan zuten–, baina I. Aitzkibil herri krosa jokatu ahal izan zen. Aitzkibilek Aitzkozar lasterketaren tokia hartu du, Iturmendiko Aitzkozar eta Bakaikuko Bakarrekotxea elkarteek antolaketan Tintiniturri elkarte batu zaielako. Horregatik, izen berria hartu duen lasterketa Urdiainen hasi eta despeditu zen.

Hasieran, haurren mailako lasterketak jokatu ziren –26 neska-mutilek parte hartu zuten–, eta gero helduen txanda izan zen. Estrainekoz bi ibilbide zituzten aukeran, luzea eta laburra.

Ibilbide laburra Urdaindik San Juan ermitara jaisten zen eta eskuineko bidea hartuta Iturmendira iristen zen, Kamio Zaharretik Urdaainera heltzeko (4,3 km). Ibilbide luzea, aldiz, Bakaikuko kanposanturaino iristen zen, eta Bakaikutik igo, eta San Benito ingurutik Iturmendira heltzen zen, segidan Urdaingo helmugara heltzeko (7,6 km). Ibilbideek harrera ona izan zuten.

Laburra hamalau korrikalarik osatu zuten, Aritz Etxebarria altsasuarra (14:40) eta Ihintza Nuñez iturmendiarrak (24:17) buru



Aitzkibilen saria jaso zuten korrikalari guztiak, proba bukaeran. UTZITAKOAK

zirela. Alde handiz gailendu ziren. Etxebarriak 2 minutu pasa atera zizkion Urko Agirre iturmendiarrari (17:18) eta Nuñezek minutu pasa Patricia Fernandez de Garaialde iturmendiarrari (25:55).

Luzean Israel Arbizu eta Asier Estarriaga etxarriarrek lehia polita izan zuten, baina azkenean Arbizu gailendu zen (25:38), Estarriagari 25 segundoko alde aterata (26:03). Joseba Galarza iturmendiarrak osatu zuen podiuma (28:55). Emakumezkoetan Maite Beregaña uharte arakil-darrak ez zuen areriorik izan

(31:06) ia 4 minutu atera baitzizkion Erkuden San Martin etxarriarrari (34:51). Edurne Rivera lizarragatarra hirugarren sailkatu zen (38:08). Guztira 30 korrikalari sailkatu ziren.

### Zaporeak elkartearen alde

Lasterketa bukaeran Tintiniturri elkartearen auzate ederraz gozatu zuten bildutako guztiek. Aitzkibil herri krosak errefuxiatu eremuetan bazkariak eskaintzen dituen Zaporeak elkarte lagundu zuen. Izena ematerakoan elikagaiak eman beharra zegoen.



SAIZ PHOTOS

## Katarainen Iratiko konkista

**MENDI LASTERKETAK** 333 korrikalarik osatu zuten Irati Trail-Orhiko Konkista (30 km, 2.100 m desnibel +). Beñat Katarain lakuntzarra (3:02:09) eta Ainara Alcuaz (3:04:26) izan ziren txapeldun handiak, erakustaldi ederra eginda. "Zoragarria lasterketa, eskerrak talde guztiari" azaldu du Katarainek. 2 minutu pasa atera zizkion Zarranzi (3:04:26).

## Euskal Herriko Erronka, banaka edo errelebotan

**MENDI LASTERKETAK** Ander Erize eta Arantza Perez de Arenaza erreleboetako txapeldunordeak izan ziren

### Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Euskal Herriko Mendi Erronka Ultra Traila jokatu zen larunbatean Leitza (67 km) Pagozelai, Gaintza, Hirumugarrieta, Unagako putzua, Iribasko iturburua, Lekunberri eta Jaundegiko borda lotu zituen proba ikusgarria. Ander Iñarrak (6:34:25) eta Oihana Azkorbebeitiak (7:54:59) errekor guztiak apurtu zituzten eta erraz gailendu ziren.

Sakandarretan, Ioritz Goñi 45. sailkatu zen (8:36:57), Joxeja Maiza 124. (10:04:03), Xuban Mendiola 132. (10:11:06) eta Francisco Javier Rodriguez 241. (11:41:29).

**Erreleboetan, txapeldunordeak** Antolakuntzak EH Mendi Erronka erreleboetan egiteko aukera eskaini zuen: lehen 32 km-ak partaide batek, Putzuzarrera arte, eta beste 32 kilometroak besteak, helmugaraino. Txapel-



Erize eta Perez de Arenaza. UTZITAKOAK

dunak Laiane Arrospide eta Iñigo Larrarte izan ziren (7:39:29) eta txapeldunordeak Ander Erize eta Arantza Perez de Arenaza arbizuarrak (7:43:10). Aran Larrañaga eta Patxi Rubio uhartearrak hamaikagarren izan ziren (8:40:06).

## Sakandarrak I. Aitzkibil lasterketan

### Aitzkibil Luzea (7,6 km)

Gizonak	
1. Israel Arbizu	25:38
2. Asier Estarriaga	26:03
3. Joseba Galarza	28:55
4. Francisco Gomez	29:01
5. Juan Carlos Gomez	30:19
6. Ruben Garcia	30:32
7. Ander Galarza	30:37
8. Imanol Guerrero	31:24
9. Santi Galarza	31:30
10. Patxi Cano	32:13
11. Mikel Luis	32:55
13. Patxi Arakama	33:43
14. Aitor L. de Goikoetxea	33:50

15. Jose A. Salgado	33:55
16. Ismael L. de Goikoetxea	34:20
17. Mikel Goikoetxea	34:27
18. Iker Flores	34:27
19. Juan Pedro Ariz	34:40
20. Santi Agirre	34:51
21. Mikel Galarza	36:24
23. Aingeru Azazeta	37:40
24. Iñigo Orella	38:08
25. Aritz Goikoetxea	39:09

### Emakumeak

1. Maite Beregaña	31:06
2. Erkuden San Martin	34:51
3. Edurne Rivera	38:08

### Aitzkibil Lasterketa Laburra (4,3 km)

Gizonak	
1. Aritz Etxebarria	14:40
2. Urko Agirre	17:18
4. Imanol Etxarri	19:10
5. Igor Artieda	21:31
6. Jonathan Medina	21:54
8. Iñaki Urteaga	25:13

### Emakumeak

1. Ihintza Nuñez	24:17
2. Patricia F. De Garaialde	25:55
3. Miriam Sanz	26:36
4. Nekane Ulaiar	26:59





Igandean 9:30ean abiatuko da Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa.

# Partaidetza ederra espero da Lakuntza-Aralarren

**MENDI LASTERKETAK** Gaur, ostirala itxiko da izena emateko epea. Zabalarte klubak 200 korrikalari inguru espero ditu, baina kopurua gainditu daiteke. Ibilbide luzea, motza eta mendi martxa izango dira, eta lasterketa solidarioak Sustrai Fundazioa lagunduko du

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA Ekainaren 11 heldu eta Lakuntza-Aralar mendi lasterketa abiatzeko irrikaz dago Zabalarte klubeko Iñaki Arkauz Rincon. "Azken bi hilabeteak eromena izaten dira: babesleekin bildu, ibilbidea garbitu, lanak zehaztu... ea igandea iritsi eta guztia ongi ateratzen den" espero du.

XVIII. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa da aurten jokoan dagoena. Iaz soilik ibilbide motzeko lasterketa jokatu zen, "pandemiaren inguruko murrizketengatik. Horretaz gain, lehen aldiz oinezko martxa antolatu genuen". Aurten, Lakuntza-Aralar ibilbide luzea bueltan da (26 km, 1.200 m desnibel +), ibilbide

motzarekin (13,3 km, 640 m desnibel +) eta oinezko martzarekin batera. Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuitua rankingerako baliagarria da.

**Paisaia zoragarriak** Bi ibilbideak batera abiatuko dira, 09:30ean, Lakuntzako plazatik. Atazartik Guardetxera

helduko dira korrikalariak. Ibilbide luzeokok Irumugarrietaraino joko dute (1.430 m), Desaotik eta Pagomaritik Arangunera jaitsiko dira, eta handik Lakuntzako helmugara. Aldiz, ibilbide laburrekook Guardetxetik Laruzgainera egiten du, Etxaaltxetatik Arangunera heldu eta bertatik herrira jaisteko. Berehala, oinezko martxa abiatuko da. Mendizaleek lasterketa motzeko ibilbidea egingo dute, baina kontrako norabidean.

## Sustrai Fundazioaren alde

Lasterketa eta martxaren segidan lasterketa solidarioari ekingo zaio. Plazatik Abarrategi kalea jaitsi, bihurtzea hartu eta atzera ere gora egingo du probak. Dorsal solidarioak 2 eurotan salgai daude eta aurten ingurumenaren babesa egiten duen Sustrai Fundazioa lagunduko da, ingurumena kaltetzen duten Nafarroako proiektuei erantzun juridiko-teknikoa ematen diona.

## Izena emateko azken eguna

Gaur, ekainak 9, Lakuntza-Aralar lasterketetan eta oinezko martxan izena emateko azken eguna da. Lasterketa laburrean 100 pertsona pasa daude, eta luzean 80tik gora. "Jendeak azken unera arte itxaroten du izena emateko, azken eguraldi iragarpenen berri izateko. 250 korrikalariendako azpiegitura prestatuko dugu, baina 200 korrikalari inguru espero ditugu, agian

gehixeko izan daitezkeenak" dio Arkauzek.

Azkenaldian, badirudi proba laburrak aukeratzeko direla luzeak baino gehiago. "Rankingetarako puntuatu nahi dute korrikalari askok, eta horrenbeste proba daudenez, agian horregatik aritzen dira laburretan".

Sari ematea 13:00etan izango da. Zabalartek 1.000 euro banatuko ditu diru-sarrietan, trofeoak eta txapelak. Bestalde, sarituek Txindoki gozotegiko Sabinok prestatutako tarta jasoko dute, opari oso preziatua dena. "Sari-dunek hori esaten digute, zeinen opari polita den. Halako esfortzuaren ondoren, tarta gozo hori gustura sartzen da".

## 50 boluntariorik gora

Anoa guneeetan, bidegurutzeetan, Lakuntzako auzatea prestatzen, dutxak eta bestelakoak antolatzen, guztia garbitu eta biltzen... "50 boluntario baino gehiago arituko gara igandean lanean. Nik ibilbide luzeok itxiera egingo dut" dio Arkauzek. Ibilbidea "zoragarri" dago. "Luzeak denetatik du: igoerak, jaitsierak, korrika egiteko tartek... eta laburra korrika asko egiteko aproposa da".

**"JENDEAK AZKEN UNERA ARTE ITXAROTEN DU IZENA EMATEKO"**  
IÑAKI ARKAUZ RINCON

## Sailkapena

### Gizonak

1. Xabi Macias	20:38
2. Thibaut Bertrand	23:36
3. Ekhi Congil	23:53
4. Imanol Irurtzun	24:15
5. Alvaro Munarriz	25:35
6. Mikel Muguiro	25:36
7. Aimar Beloki	26:25
8. Unai Razkin	26:31
9. Gaizka Angulo	26:31
10. Ander Biurrarena	26:41
11. Mikel U. Lizarbe	26:53
12. Mikel Remon	27:04
13. Alatz Agirre	27:37
14. Mikel Rubio	27:40
15. Jabito	27:47

### Emakumeak

22. Elisa Gonzalez	28:55
31. Ilargi Pere Oronoz	29:34
37. Haizea R. de Alda	30:05
50. Angela Diaz	33:02
55. Espe Santesteban	34:52
56. Sonia Alonso	36:15
57. Nerea Balda	36:20

\*Oharra: Lehen 15 postuak.



UTZITAKOIA

## Maciasek hegan egin zuen Trinitatean

**MENDI LASTERKETAK** 57 korrikalarik parte hartu zuten Irurtzango La Guan taldeak antolatutako Ergako Trinitatera Krono Igoeran. "Oso pozik gaude. Sekulako giroa egon zen, eta ibilbidean zeuden ikusleek izugarri animatu zituzten korrikalariak" azaldu du La Guaneko Roberto Martilek. Irabazleak, Xabi Maciasek, aurreko errekorra minutu batean apurtu zuen.

"Bagenekien oso ona dela, baina denbora harriagarria egin zuen (20:38). Ekhi Congil, hirugarren, lehen sakandarra izan zen (23:53). Emakumezkoetan Elisa Gonzalezek irabazi zuen (28:55) eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarra lehen sakandarra izan zen, hirugarren (30:05). Unai Razkin eta Gaizka Angulo (26:31), eta Nerea Balda (36:20) lehen irurtzundarrak izan ziren.

# Iskizako gimnastak hirugarren mailara igo dira

**GIMNASIA ERRITMIKOA** Nafarroako Kirol Jokoen talde txapelketako bi faseetan egindako lana kontuan hartuta, Iskiza Sakanako kimuen eta kadeteen taldeak bigarren sailkatu dira eta laugarren mailatik hirugarren mailara igo dira

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Ekainaren 3an Nafarroako Kirol Jokoen taldekako gimnasia erritmikoko txapelketako bigarren fasea jokatu zen Berriozarren. Iskiza Sakana klubeko bi taldek parte hartu zuten: kimuek eta kadeteek. Haurren mailako ezin izan zuen aritu.

**Bigarrenak**

Bi taldeak oso ongi aritu ziren. "Lehen fasean bigarren sailkatu izanaren urduritasuna nabaria izan arren, bi taldeek ikasturte osoan zehar ikasitakoa erakutsi zuten eta gogoz defendatu zuten bere ariketa" azaldu du Iskizan Sakana taldeko koordinatzaile Olaia Agirrek. Bigarren fasean kimuen taldea bosgarren sailkatu zen, eta kadete taldea bigarren. Bi faseetan egindako lana batuta, bi taldeak, kimuen eta kadeteena, bigarren sailkatu dira Nafarroako Kirol Jokoen taldekako gimnasia erritmikoko txapelketan. "Horregatik, mailaz igoko dira bi taldeak. Aurten laugarren mailan aritu dira, eta hurrengoan, aldiz, hirugarrenean lehiatuko dira. Beraz, hurrengo ikasturtea hasteko irrikaz gaude!" adierazi du Agirrek, pozik. Iskizako gimnastek denboraldi honetan izan duten bilakaera nabarmena da. "Entrenatzaileak ezin gara harrogo egon".

**Larunbateko festa**

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldeak larunbatean, ekainak 10, ikasturte amaierako erakustaldia egingo du Altsasuko Zelandi kiroldegian, 11:30etan. Nafarroako Kirol Jokoen parte hartzen duten taldeez gain, Altsasuko eta Arbizuko eskolako gimnasta guztiek parte hartuko dute eta Olaztiko Sutegi taldeak eta Iturmendiko taldeak. "Sakanako gimnasta guztien lanaz gozatzeko aukera paregabea izango da".



Iskiza Sakanako kimuen mailako taldekoak, pozik. ISKIZA SAKANA



Kadeteak, lortutako domina gertu dutela. ISKIZA SAKANA

## Hernandezen aurrera pausoa

**ARETO FUTBOLA** Azken 20 urtetan Imanol Arregiren bigarren entrenatzailea izan den Miguel Hernandezek hartuko du Lehen mailako Osasuna Magna Xota entrenatzeko ardura. "Ilusio ikaragarriarekin eta ardura handiarekin nago. Klub onenarekin fitxatu dut eta ligako entrenatzaile onenetako batekin 20 urteko unibertsitatea egin dut" azaldu du.



XOTA



DANTZALEKU SAKANA

## Sakanako Atletismo festa

**ATLETISMOA** Dantzaleku Sakana klubak larunbatean antolatutako Sakana atletismo festan 80 gaztetxo inguruk parte hartu zuten. Zerbait diziplina probatzeko aukera izan zuten, luxuzko irakasleekin: Maria Ordoñez eta Jose Antonio Salgado mendi korrikalariak, Uxue Erice jauzilaria eta 40 m hesi lasterketako espezialista den Iker Alfonso atleta.



ARALAR TXIRRINDULARITZA KLUBA

## Adrian Martinezen lehena

**TXIRRINDULARITZA** Igandean junior mailako 54. Araiako San Pedro Saria jokatu zen. Sakana Group-Alea taldeko Adrian Martinez Los Santosek denboraldiko bere lehen garaipena lortu zuen, helmugatik gertu eraso jo eta Jurdan Garciari nagusituta (1:51:10). Quesos Albenizko Iker Gomez altsasuara bosgarren sartu zen, 2 segundora.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI  
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /  
kultura@guaxe.eus

## OSTIRALA 9

## ALTSASU Erakustaldia.

Arte martzialak plazara! Amets Yoseikan Budo taldeak eta Arbuzo Borroka Klubak antolatutako erakustaldia.

18:00etan, Burunda frontoian.

## IRURTZUN Bertso poteoa.

Pikuxarreko bertso tailerreko bertso poteoa.

19:00etan, Pikuxarren.

## LAKUNTZA Dastaketa.

Garagardo dastaketa, Lakuntzako Pertza Elkarteak antolatuta.

19:00etan, Lakuntzako Pertza Elkarteak.

## ALTSASU Bertso saioa.

Altsasuko Bertso Eskolako bertso saioa, bertso eskolako ikasleekin eta Ainara leregi, Endika Legarra, Eneko Lazkoz, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Urritz Alegre bertsolariekin. Bertso eskolako ikasleek eta Kukurreka elkarteak antolatuta. Nafarroako Bertsozale elkarteak eskainitako merendua.

19:00etan, Kukurreka elkarteak.

## LAKUNTZA Hitzaldia.

Trantsizio energetikoa Nafarroa Sustrai Fundazioaren hitzaldia, XVIII. Lakuntza – Aralar mendi lasterketa solidarioaren harira.

19:30etan, kultur etxean.

## ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Xabier Irujo historialariaren Gamazada hitzaldia, Altxa Burua! Sakanako euskaltzaleen sareak antolatuta.

19:30etan, kultur etxean.

## ALTSASU Dantza emanaldia.

Euskal Herriari bira Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako haurren dantza taldeen emanaldia.

19:30etan, lortia kultur gunean.

## ALTSASU Aurkezpena.

Itaiaren Gernikako jardunaldien aurkezpena. Ondoren, pintxo pote eta afariak.

19:30etan, gaztetxean.

## LARUNBATA 10

## IRURTZUN KulturenARTEkotasan zikloa.

Nolako zaporea dauka kulturenartekotasunak? Munduko arrozak ekimena. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak eta Irurtzungo Udalak antolatuta.

10:00etan, Foru plazan.

## OLATZAGUTIA Kotxe kontzentrazioa.

III. Kotxe Kontzentrazioa eta DJ Miamiren saioa.

10:00etatik 15:00etara, Barandi tabernaren aurrean.

## ALTSASU Ate irekiak.

Lacunza enpresaren 50. urteurrenaren ate irekiak.

11:00 Taldearen bilera.

11:15 Ekitaldiaren sarrera.

11:30 Lantegi eta bulegoie bisita.

12:00 Lunch, musika, puzgarriak eta txikiei oparia.

## ALTSASU Erakustaldia.

Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldearen ikasturte amaierako erakustaldia.

11:30etan, Zelandi kiroldegian.

## LAKUNTZA Erakustaldia.

Karate erakustaldia, Irurtzungo Shotokan karate taldeak antolatuta.

12:00etan, frontoian.

## ALTSASU Dantza emanaldia.

Matilda Musikala Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako txikien taldeen ikasturte amaierako ikuskizuna.

17:00etan eta 19:00etan, lortia kultur gunean.

## LAKUNTZA Kontzertua.

Xabier Lete eta Iñaki Dieguezen eta Txalaparta Sound Sistem taldearen kontzertua.

19:00etan, kultur etxean.

## IRURTZUN Urteurrena.

Pikuxarren XX. Urteurrena ospatzeko Gabezin erromeria taldearen kontzertua.

20:00etatik aurrera, Pikuxar plazan.

## IGANDEA 11

## LAKUNTZA Mendi lasterketa.

XVIII. Lakuntza – Aralar mendi lasterketa eta martxa solidarioa, Zabalarrek antolatuta. Bi ibilbide: luzea 26 km eta 1200 metroko desnibela eta laburra 13,3 km eta 640 metroko desnibela. Sustrai Fundazioaren aldeko dortsal solidarioak erosteko aukera izanen da.

08:30etan, martxa ez lehiakorra;

09:30etan, lasterketa, plazatik.

## ALTSASU Txirrindularitza.

26. Altsasuko BTT Zeharkaldia, Barranka Txirrindularitza Taldeak antolatuta. Bi ibilbide. Proba ez lehiakorra.

09:00etan, Foru plazatik.

## ETXARRI ARANATZ Erakusteta.

Artista etxarriarrak plazan: Etxarri Aranazko margo taldea, Emhari joskintza taldea, Silbia Sesmairen Pitxikeyek, Estimulazio kognitibo taldea, Idoia Agirre, Tomas Mauleon, Jave Jaka, Reme Garziandia eta Sagra Mauleon artista etxarriarren eta Alvaro Mundiñano margolaria zenaren lanen erakusteta.

12:00etan, plazan.

## ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Musika plaza: Etxarri Aranazko Musika Eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua.

12:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 12

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

## ETXARRI ARANATZ Erakustaldia.

Etxarri Aranazko zirku tailerreko ikasleen erakustaldia.

18:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Aurkezpena.




ARTIXBOA

IRURTZUN Ricardo Azkargorta artistaren Bertatik Bertara margolan erakusteta. Ekainaren 12tik aurrera. Pikuxarren.



LUTZITAKOIA



ARTIXBOA

ALTSASU Itziar Nazabal arte tailerraren ikasleen lanen erakusteta. Ekainaren 25era arte. lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA AHTaren aurkako borroka 30 urte erakusteta. Ekainaren 9tik 11ra. 18:00etatik aurrera. Maisuenea gaztetxean.



## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

Mi crimen gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Igandea 11 19:30

Euskal Herriatik mundura.

Euskal Herriak erabaki Gure Esku dagoren ekimenaren Sakanako aurkezpena.

19:00etan, Gure Etxean eraikinean.

## ASTEARTEA 13

## ALTSASU Sari banaketa.

Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuko Maria Markotegi eta Nanoipuin literatur sariketen sari banaketa ekitaldia.

17:30etan, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 14

## ZIORDIA Tailerra.

Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra, Sakanako Mankomunitateak eta Biak Bat elkarteak antolatuta.

18:00etan, liburutegian.

**Erviti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusteta Irurtzunen

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 €/106,5 €/143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**Izarra, Nafarroako tanatorioa**

Gure lurra, gure jendea, gure sustriaik

BEILATOKIAK

ALTSASU  
Santa Cruz, 6ETXARRI-ARANATZ  
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

**JAIOTZAK**

- **Amir Hichame**, maiatzaren 25ean Ziordian
- **Anir Aghrob Bouirigue**, maiatzaren 29an Altsasun
- **Aline Semmami**, ekainaren 1ean Altsasun
- **Imran Essobai**, maiatzaren 29an Olaztin

**HERIOTZAK**

- **Florentino Díez-Canseco Diego**, ekainaren 4ean Iturmendin
- **Paulino Urteaga Ruiz de Eguino**, ekainaren 1ean Altsasun
- **Maria Isabel Martinez Lopetegi**, ekainaren 1ean Lakuntzan
- **Maria Rosario Lacunza Musquiz**, ekainaren 6an Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**IRAGARKI SAILKATUAK****LANA/NEGOZIOAK****ALOKAGAI**

**Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta *officea* ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

**LAN ESKAINTZA**

**Lakuntzako Udalen udarako begiraleak behar ditu:** Haurrei zuzendutako Udan Euskaraz ekainaren 26tik uztailaren 28ra izango da eta bertan lan egiteko begiraleak kontratatu nahi ditu udalak. EGA edo baliokidea izatea beharrezkoa da, eskabideekin batera curriculuma eta jolas gunean egiteko ekintzen proposamena aurkeztu behar da ekainaren 14a izango da azken eguna. Informazio gehiago Lakuntzako Udalean edo [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orrian.

**Irurtzango Pikuxar tabernan zerbitzari eta sukaldari lan postsa:** Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Espereintzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculumak jasotzen ditugu tabernan utziz edo [pikutaberna@gmail.com](mailto:pikutaberna@gmail.com) helbide elektronikora bidalita.

**Arakilgo Udalen udarako aisialdi campuserako begiraleen lan postsa osatu nahi du:** Deialdian interesa duenak [arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) postara curriculumak bidali

behar du. Derrigorrezkoak dira Euskara B2 maila izatea, DBH edo baliokideak diren ikasketak eta aisialdi begirale titulua izatea.

**IKASTAROA**

**Irurtzunen haurren ikastaroa:** Klaseak garilaren 6tik 28ra izango dira, asteleheneetatik ostegunetara. Igerilekuko bazkide haurrek 52 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek 62 euro. Mailaketa proba garilaren 3an egingo da, 12:00etan. Izena emateko epea ekainaren 22an amaitzen da. Izen emate orria eta informazio gehiago [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) web orrian edo udaletxean.

**LEHIAKETAK**

**Zurumurruren kontrako ipuin laburren IV. Lehiaketa:** Aniztasunean elkarbizitza sustatuko duen istorioa sortu eta lehiaketa parte hartzeraz gonbidatuta dago Mank-en Anitzartean zerbitzuaren eskutik. Bidali zure ipuina [anitzartean@gmail.com](mailto:anitzartean@gmail.com) helbide elektronikora ekainaren 30a baino lehen. Zalantzak edo galderak 648 070 710 telefonora deituz.

**Olaztiko Santa Ana festak iragartzeko kartel lehiaketa:** Lanak erregistro elektronikoki bidez edo udaletxean aurkez daitezke ekainaren 21ko 14:00ak baino lehen. Sariak egonen dira, oinarriak eta informazio gehiago Olaztiko Udalean edo

[www.olazti.eus](http://www.olazti.eus) weborrian.





**Altsasuko festetako kartel lehiaketa 2023:** Festetako programan azala (helduen modalitateko irabazlearena) eta kontrazala (haurren modalitateko irabazlearena) aukeratuko dira. Lanak ekainaren 16ko 14:00ak baino lehen lortia Kultur Gunean aurkeztu behar dira. Oinarriak eta informazio gehiago [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) eta lortia Kultur Gunean.

**OHARRAK**

**Etxarri Aranazko igerilekuak zabalik:** 10:00etatik 20:00etara zabalik egonen dira. Jubilatuek NANA aurkeztu beharko dute sarrera dohainik izateko. Txartelak eta ordainketa kanpinkeko web orriaren bidez bideratuko dira [www.campingetxarri.com](http://www.campingetxarri.com).

**Lakuntzako Udalen Euskarazko emateko epea zabalik:** Ekainaren 26tik uztailaren 28ra burutuko da goizeko 9:30tik 13:30ra. Izena ematea [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orriko galdetegia betez egin behar da, epea ekainaren 14an amaitzen da.

**Uharte Arakilgo igerileku sasoi:** ekainaren 16tik irailaren 17ra egonen dira zabalik, 11:00etatik 20:00etara. Gogorazazi dute bainatze txanoa erabiltzea derrigorrezkoa dela. Txartelak udalean eskuratu daitezke, astegunetan 10:00etatik 14:00etara. Aurretik herriko banketxeetan ordaindu beha-

**EGURALDIA ASTEBURUAN****Ostirala, 9****Larunbata, 10****Igandea, 11****Astelehena, 12**

rreroa pagatua izan behar da. Prezio ezberdinak daudenez, informazio gehiago udaletxean edo [www.uhartearakil.com](http://www.uhartearakil.com) web orrian.

**Lakuntzan egur epaitzak eskatzeko epea zabalik:** Aurten Uskain dermiotik aterako dira. Epaitza bakoitzak 50 euro balio du, eskaerak egiteko 948 576 015 telefonora deitu behar da edo [info@lakuntza.eus](mailto:info@lakuntza.eus) emailera idatzi. Eskaera egiteko epea ekainaren 9ko 14:00etan amaitzen da.

**Lakuntzako igerilekuko txartelak eskuragarri:** Ekainaren 18an zabalduko diren igerilekuko txartelak eskuragarri daude udaletxean. Prezio ezberdinak adinaren arabera [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orrian ikusgai, interesa duenak udaletxean egin dezake ordainketa bankuko txartelaren bidez edo aurretik kutxan ordainketa egin eta ziurtagiriarekin udallexera joan.

**Aralar aingeruari haurrak aurkeztea:** Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatzen du. 18. edizioa uztailaren 23an izanen da. Aldez aurretik izena ematen dutenek elizkizunaren ondoren umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa jasoko dute. Horretarako, santutegiko sakristian edo dendan eman behar da izena.

**Lakuntzako entitateendako udalaren dirulaguntza deialdia zabalik:** Laguntzak eskuratzeko

baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntza-errotak gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen libre eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide ereduak [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) webgunean dago. Eskaerak garagarriaren 16ra arte aurkez daitezke.

**Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan:** Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 32 85 93.

**Herri Urratsekin elkartasun uholdean diru ekarpenak egiteko:** Herri Urratsera joatea ezinezkoa egin bazitzaizun eta sostengua erakusteko aukera hauek dituzte; [www.herrirrats.eus](http://www.herrirrats.eus) web orrian sartuta eta materiala erosiz, Bizum bidez Dohaintzak egiteko atalera sartuz (herri urrats aurkitu eta dirua bidaliz) edo honako kontu korronte hauetan dirua sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197, ES98 2095 5045 8710 6117 7332.

**Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak:** Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian eskura dezakezue.

**Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direnendako dirulaguntzak:** 2022ko uztailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informetika bidezkoak, C2 mailakoak barne. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

**Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak:** Establezimendu komertzialak, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotuluak jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita dauden %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



JUUL hauteskunde literarioen sari banaketa ekitaldian egon ziren idazle eta ilustratzaile saridunak. NIE

## Hauteskunde literarioen sariak banatu dituzte

Etxarri Aranazko kultur etxean egin zuten Euskal Herriko ikastoletan egiten duten ikasleen idazle eta ilustratzaile gogokoena aukeratzeko JUUL hauteskundearen sari banaketa, Nafarroa Oinezko antolatzaileak, Andra Mari ikastolak, antolatuta

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI ARANAZ Nafarroako Ikastolen Elkarteak haur eta gazteendako urtero antolatzen dituen hauteskunde literarioen idazle eta ilustratzaile bozkatuenei sariak banatzeko ekitaldia ospatu zen asteazkenean, ekainaren 7an, Etxarri Aranazko kultur etxean, Andra Mari Ikastolako ikasleen parte hartzearekin. JUUL sari bana-

keta ekitaldia Nafarroa Oinez antolatzen ari den ikastolarekin antolatzen du NIEk eta, beraz, aurten Andra Mari Ikastolarekin elkarlanean Etxarri Aranazten antolatu zen.

2023ko martxoaren 30ean izan ziren JUUL hauteskunde literarioak Euskal Herriko ikastoletan, eta 14.444 ikaslek gustukoena duten liburua aukeratzeko

eta 6.822 ikaslek ilustratzaile aukeratzeko botoa eman zuten. "Benetan ikaragarriak diren zenbakiak". Izaskun Errazkin Beltza Andra Mari Ikastolako lehendakariordeak ekitaldian aipatu zuenez: "Irakurketa funtsezko oinarria da gure ikasleen hezkuntzan, eta irakurketaz gozatzeak aukera ematen du ideien, posiblearen

eta ezinezkoaren, errearen eta fikziozkoaren mundura leihoa zabaltzeko. Ilustrazioen bidez, irudimena elikatzen duen mezuaren zehaztapen plastikoa iristen zaigu". Irakurzaletasuna euskara eta euskal kulturaren transmisioa garrantzitsua dela gaineratu zuen Errazkinek, "euskaraz irakurriz gozatzen ari den umea gaitasun linguistikoa ere lantzen ari da, baita euskararekiko lotura afektiboa indartzen ere".

### Saridunak

JUUL hauteskunde literarioak ikasleen ikasmilaren arabera egiten dira, eta zazpi kategorietan banatzen dira, 3 eta 6 urte bitartekoak, 6 eta 8 urte bitartekoak, 8 eta 10 urte bitartekoak, 10 eta 12 urte bitartekoak, 12 eta 16 urte bitartekoak eta 16 eta 18 urte bitartekoak. Besteak beste, liburu gogokoena artean, kategoriatan bakoitzean lehen postuan dauden liburuak hauek dira: Ainara Azpiaz *Axpi*-ren *Basoan barna*, Galdu dena, Garazi Kamioaren *Galdu dena*, *azaldu dadi!*, Ibon Martinen *Onin* eta Arimen *gaua*, Nerea Loiolaren *7G udalekuak*, Amets Arzallus eta Ibrahim Balderen *Miñan* eta Uxue Apaolazaren *Bihurguneko Nasa* dira. Kategoriatan bakoitzean hiru liburu daude, eta ilustratzaileen kasuan gustukoena Emmanuel Montiel, Eider Eibar, Joseba Larratxe *Josevisky*, Ivan Landa eta Asier Iturralde Gaston dira.

Sari banaketan Eider Eibar, Joseba Larratxe *Josevisky*, Ainara Azpiaz *Axpi*, Ivan Landa, Asier Iturralde Gaston, Iñigo Astiz, Jon Arretxe, Jasone Osoro, Garazi Kamio eta Nerea Loiola sarituak egon ziren. Antolakuntzatik aipatu dutenez,

haien erantzuna "bikaina" izan da, eta oso eskertuta daude ekitaldian parte hartzeagatik.

Sari banaketa ekitaldia Irene Lopez-Goñik aurkeztu zuen eta Izaskun Errazpin Beltzaren parte hartzea ez ezik, Elena Zabaleta Andresena NIEko lehendakariak eta Josu Reparaz Leitzak NIEko zuzendariak hitza hartu zuten ere. Lopez-Goñik azaldu zuzenez, ikastolen elkarteak 25 urte daramatza euskarazko haur eta gazte literatura sustatzen, "urtez urteko egitasmo honen zenbakiak aho bete hortz uzten gaituzte". Zabaleta ere JUUL kanpainaren 25 urteurrena nabarmendu zuen, "egitasmoaren helburu nagusia euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea da, eta horretan daramatzagu 25 urte ikastoletan pozik".

Haurren liburuak ez direla "soilik" dibertitzeko aipatu zuen NIEko presidentek, "heziketara, inspirazio eta balio garrantzitsuak irakasteko ere baliagarriak dira". Gazteen literaturari dagokionez, identitatearen eta pertsonaltatearen garapenean eragina izan dezaketela azaldu zuen, "baita haien inguruko mundua hobeto ulertzeko garaian ere".

Reparazek sariaren inguruko informazioa eman zuen: "ohikoa den bezala ikastoletako ikasleen aldetik bozkatuen izan diren idazleei zein ilustratzaileei NIEk aitortzen berezia egiten die". Faustino Aizkorbe artista nafarrari JUUL saria egitea eskatu zion, eta saridunek jaso dutena da.

### NAFARROA OINEZ ANTOLATZEN DUEN IKASTOLAK ANTOLATZEN DU JUUL SARI BANAKETA

## Bertso eskoletako ikasturte amaierako saioak baino gehiago

Maiatzaren 26an egin zuten Lakuntzako bertso eskolako jaialdia, eta gaur Altsasukoa egingen dute

### SAKANA

Lakuntzako bertso eskolako ikasleek antolatutako bertso saioa izan zen maiatzaren 26an, ostirala, herriko plazan, bi helbururekin: alde batetik, ikasleen motibazioa eta, bestetik, ibarrean

bertso saioak sustatzea, Saats Karasatorre irakasleak aipatu zuenez. Lakuntzakoaren ondoren gaur, ekainak 9, ostirala, 19:00etan, Altsasuko bertso eskolako bertso saioa izanen da, bertso eskolako ikasleek eta

Kukuerreka elkarteak antolatuta. Irurtzunen, ordu berean, Pikuxar bertso tailerreko bertso poteoa izanen da.

Altsasuko bertso eskolako bertso saioan bertsolari gazteekin batera, Idoia Granizo, Ekain Alegre, Urritz Alegre eta Eneko Lazkoz bertsolari sakandarrak eta Iruñerriko Ainara Ieregi eta Endika Legarra bertsolariak ariko dira. Bertsozale Elkarteak merendua jarriko du eta Kukuerreka elkarteko kideak barran egonen dira.



Lakuntzako bertso eskolako jaialdia.



Haize Txikiak bandak Lakuntzako sansaastinetan emandako kontzertua. ARTXIBOA

# Sakanako musikari harrobiaren trebakuntza

Duela urte bat sortu zen Haize Berriak bandaren baitan Haize Txikiak musika eskoletako ikasleez osatutako banda. Topaketa berri bat eginen dute, ekainaren 26tik 30era, Lakuntzako kultur etxean. Banda txikiaren hirugarren topaketa izanen da

**Erkuden Ruiz Barroso** LAKUNTZA Sakanako Haize Berriak bandaren eta musika eskolaren arteko zubia izateko sortu zuten Haize Txikiak banda proiektua duela urte bat. Lehenengo topaketa, hain zuzen ere, 2022ko ekainaren amaieran izan zen, Irurtzunen. Proiektua aurrera doa eta aurten ere topaketa eginen dute: ekainaren 26tik 30era, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, Lakuntzako kultur etxean. Jasone Etxebeste Haize Berriak bandako kideak eta Irurtzungo musika eskolako irakasleak azaldu duenez, "instrumentu bat jotzen duen eta banda batean jo nahi duen ororentzako ateak irekita daude".

"Haize Berriak bandak hasieratik indar asko jarri du proiektu honetan, eta musika eskoletatik, irakasle eta zuzendaritzaetatik eta gurasoetatik inplikazio handia egon da". Proiektua gustukoa izan dela esan du Etxebeste, eta horregatik ere ikasleen inplikazioa "%100koa" izan da.

"Eskertzekoa da eta guri lana errazten digu". Duela urte bat jarri zuten martxan proiektua eta "esperientzia oso polita izan da. Gurasoak etortzen zaizkigu esanez beraien seme-alabak instrumentua jotzeko motibatuta ikusten dituztela". Haize Berriak kideentzako eta irakasleentzako ere esperientzia "polita" izaten ari da, "beraien lana eta esfortzua taularatzen ikusten dugulako".

## Topaketak

2022. urtean bi topaketa egin zituen Haize Txikiak banda: estreinakoa udaren hasieran izan zen, Irurtzunen, eta bigarrena Eguberrietako oporretan. "Oso ondo aritzen dira. Esaterako,

**HAIZE TXIKIAK BANDAREN HURRENGO TOPAKETA EKAINAREN 26TIK 30ERA IZANEN DA, LAKUNTZAN**

Gabonetako esperientzia bi edo hiru abesti sartzearabakiguenen eta bi egunetara kontrolatuta zituzten. Kontzertu hura agian pixka bat motza gelditu zitzaigun". Irakasleak komentatu duenez, bi edo hiru abesti gehiago sartuko balizkiegu, "ziur aterako zituztela". Haize Txikiak bandak Azeptiko Banda Gazteen topaketan parte hartu zuen ere, apirilaren 23an; bandaren lehenengo irteera izan zen.

Topaketa hauetan musikari gazteek kontzertu bat prestatzen dute. Lakuntzan ekainaren 26tik 30era eginen duten topaketaren ondoren, hain zuzen, uztailaren 1ean Etxarri Aranatzan eta uztailaren 2an Irurtzunen emanen dute kontzertua. "Abesti berriak ematen zaizkie eta horiek lantzeko egun batzuk ditugu". Helburua kontzertua aurrera eramatea bada ere, "beste balore pila bat" ikasten dituzte: "taldean lan egiten ikasten dute; musika talde batean, banda batean, orkestra batean, txaranga batean

eta abarrean oso garrantzitsua da beste instrumentuetako jendea entzutea, pazientzia edukitzea...".

Haize Txikiak bandako topaketa instrumentu bat jotzen duen "ororentzako" zabalik dagoela esan du Etxebeste: "Interesa daukan edonork [haizetxikiak@gmail.com](mailto:haizetxikiak@gmail.com) epostara idatz dezake. Parte hartzea garrantzitsua da, ikustea talde batean jotzea gustatzen zaion, eta gero bakoitzak ikusiko du gustura dagoen edo ez, baina behintzat Haize Berriaketik gazteei ateak zabaldu nahi dizkiegu". Banda batean jotzea "badirudi oso serio dela", baina oso ondo pasatzen dutela esan du irakasleak.

Haize Txikiak bandak banda "handiarekin" jo izan du. "Haize Berriak bandan oso giro polita dago, banda gaztea da ere, eta txikitik datozenean ongi sentitzen

dira". Musikari gazteek bandan dagoen giroa ikustean, "oso ondo pasatzen dute". Bandako nagusienek gazteak ongi prestatuta joaten direla ikustean, "pilak jarri beharko dituztela" komentatzen dute. "Bata bestearekin oso erlazio polita egiten dute, oso ondo pasatzen dugu denok".

"Uste dugun baino musikari harrobi handiagoa dugu Sakanan". Etxebeste gurasoie esker-tu nahi die haurrak musika eskoletan apuntatzeagatik eta kulturaren aukera emateagatik: "Eskolaz kanpoko pila bat daude eta ume, gazte edo ikasle bat musika eskolan sartzeara eta jakin-min hori sartzeara ez da oso erraza". Musika eskolatan ere "lan polita" egiten ari direlaren erakusle. Haize Berriak bandan ere "oso pozik" daude harrobia dagoela ikusita.



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

## Mirarizko dietak osasuntsuak dira?

Uda hasierarekin batera, pisua galtzeko presak etortzen dira, eta askotan, pisua erraz eta azkar galtzeko dugula iragartzen duten produktu eta dietetara jotzen dugu. Kasu horietan, irentsitateko kaloria murrizketa izugarria eragiten da, eta horren ondorioz, pisua azkar galtzen dugu. Zoritxarrez, ondorio horrekin batera, behar nutrizional eskasiak eta metabolismoaren alterazioak gertatzen dira, gure osasunari kalte egiten diotenak.

Pertsona askok pisu-galera azkarra arrakastarekin lotzen dute, pisu-galera hori muskulu-masakoa izan dela konturatu gabe. Gihar masak gantzak baino gehiago pisatzen du, eta buruan sartu behar zaigu baskulan ageri den zenbakia, zifra bat besterik ez dela eta ez digula informaziorik eskaintzen. Gerta daiteke pisu bereko bi pertsona izatea, batek gihar masa ugariarekin eta besteak gantz masa ugariarekin. Horien osasuna ez da berdina izango eta biek pisu bera dute.

Miraria! Gorputz konposaketa, digestio, deskantsu, indar, antsietatea kudeatzeko estrategietan... zentratzea aldiz bai. Ohitura osasuntsuak landu behar dira eta dieta mota hauek betiko egiteari utzi.

Mirarizko produktu mota horiekin ez da epe luzerako arrakasta lortzen. Produktu horiek horren ezaguna den errebote-efektua ekar dezakete, hau da, galdutako pisua azkar berreskuratzea, arazoa partxeatzen dutelako benetan pisua irabaztera edo ez galtzera eramaten duen fokua landu gabe utziz.

Pisua galtzeko, dietista-nutrizionista profesional baten eskuetan jartzea gomendatzen dut, dieta edo janari plan orekatu eta pertsonalizatua bermatzeko. Pisu galerak mailakatua eta kontrolatua izan behar du, bizi ohitura osasuntsu batzuekin konbinatuz. Nire ustez, hauek dira bizitzako hiru zutabe esentzialak; elikadura osasuntsu, ariketa fisiko eta atsedean/ loaldi egokia. Hiru zutabeak estuki erlaziozaturik daude eta horietako batek huts eginez gero, eraikina erori egiten da. Emaiozu osasunari merezi duen garrantzia, dieta eta produktu miragarriek osasunari kalte egiten baitiote.



Elektrokela Elektrotxaranga Azeptiko Euskal Herriko II. Elektrotxaranga Lehiaketan. AITZIBER ARZALLUS (UKT)

# Elektrotxaranga hoberena

Azeptiko Alde Zaharreko Tabernarien Elkarteak eta udalak antolatutako Euskal Herriko II. Elektrotxaranga Lehiaketa irabazi du Altsasuko Elektrokela Elektrotxarangak. Duela hiru urte sortu zuten zenbait musikari gaztek

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Pixka bat sorpresa" izan dela aitortu dute Elektrokela Elektrotxarangako kideek Euskal Herriko II. Elektrotxaranga Lehiaketaren irabazleak direla jakin ostean. Lehiaketa Azeptiko Alde Zaharreko Tabernarien Elkarteak eta Azeptiko Udalak antolatzen du eta aurtengo edizioan zazpi taldek parte hartu zuten: Hamarru, Elektrotxorongo, Elektrotxufla (aurreko edizioko irabazleak), Distopia, OstiKda, Skapaie eta Elektrokela bera. Udalak jakinarazi duenez, "lehia estua" egon da, eta irabazleen eta bigarren sailkatuen artean puntu bateko alde egon da. Elektrokela 6.000 euroko saria eta San Inazio festetan egun bat jotzea irabazi du. Ekipoan inbertsioak egiteko baliatuko dute sari ekonomikoa, "hobetzeko".

Azeptiko Euskal Herriko Elektrotxaranga Lehiaketaren bigarren edizioa izan da aurtengoa. Maiatzeko astebururo parte hartzen zuten bi txarangek emanaldia ematen zuten, lehenengoa izan ezik, bakarrik aritu zela. Elektrotxarangen artean giro ona zegoela esan dute Ekain Alegre, Hodei Alegre eta Iruña Guinea Elektrokela kideek, eta lehiaketa bat baino kontzertu bat bezala bizi izan zuten esperientzia: "Elektrotxaranga asko zeuden, tartean aurreko urteko irabazlea, eta kontzertuak ikusita ez genuen espero irabaz-

**"EZ GENUEN ESPERO, ELEKTROTXARANGA ASKO ZEUDEN, TARTEAN AURREKO EDIZIOKO IRABAZLEA"**

tea. Baina lortu dugu". Maila handiko txapelketa izan zela aipatu dute.

Maiatzaren 20an, larunbata, jo zuten Elektrokela Azeptiko kaleetan Skapaie txarangearekin batera. Lehiaketan parte hartzeko eskaera iritsi zitzaion: "Hainbat elektrotxaranga aukeratzen dituzte, eta guk data libre eta abar aipatu behar genituen". Hortik txapelketan parte hartzeko elektrotxarangak hautatzen dituzte.

"Gure partetik dena jarri genuen, entseuetan fokua kontzertu ahalik eta konpaktuena egiteko prestatu genuen, azkarra, kanten artean ahalik eta espazio gutxiengoteko". Hasiera pixka bat "hotza" izan zela azaldu dute musikariek, "baina bukaeran publikoa entzumatzea lortu genuen eta nahiko giro polita sortu zen". Azeptin festak ziren,

"eta nahiko jende batu zen". Txapelketarako prestatutako abesti berriek, "erantzun ona" izan zutela esan dute.

Elektrotxarangaren bereizgarritasuna "talde bezala ongi funtzionatzen" dutela dela esan dute. "Inbertsio handia egin dugu ekipoa eta soina hobetzen, eta enfokea abestiak ongi, perfektu, ateratzen jartzen dugu, musikalki ahalik eta hoberen egiteko". Modu honetan, emanaldi batean egon daitezkeen eta beraien esku ez dauden faktoreek influentzia "ahalik eta gutxiengoteko" izatea lortzen dute. "Aurretiko prestakuntza" ezinbestekoa da, beraz. "Entsegu ordu asko egiten ditugu, pila bat, eta hori ikusten da".

"Errepertorio aldetik ere bereizten gara. Saiatzen gara jendeak ez dituen abestiak sartzen, beti izaten da sorpresaren bat". Urte urte errepertorioaren zati gehiena aldatzen saiatzen dira ere. "Ia bi urte generamatzen berdinarekin, eta ahalik eta gehien aldatzeko prozesuan ari gara. Kanta berriak ditugu, eta gehiago sartuko ditugu. Egia da zenbait elektrotxarangak abesti jakin batzuk jotzen dituztela eta badakizula zer joko duten, baina gu ahalik eta desberdina egiten saiatzen gara, ez errepikatzea lortzeko, eta gu ere ez aspertzeko". "Freskotasuna" mantendu nahi dute. Dena dela, emanaldi gehienetan abestiak eskatzen dizkietela azaldu dute: "Beti dago norbait. Batzuetan kasualitatez aurrerago joko dugula, baina beste batzuetan ez dugu jotzen". Cicatriz taldeko abestiren bat eta *Lokaleko leihotik* egoten dira eskatuenean artean.

## Elektrokela

2019ko Altsasuko festetan ospatu zuten lehenengo Kuadrillen egunean herriko zenbait musikari gazte bildu ziren herri elektrotxarangan jotzeko. Urte batera, pandemiaren erdian, Elektrokela Elektrotxaranga aurkeztu zuten. Hasiera "nahiko kaotikoa" izan zela azaldu dute kideek: "Orain pixka bat egonkortu gara. Egitura bat badugu, badakigu nora eramán elektro-

**"MUSIKALKI ASKO PRESTATU ZAITEZKE, BAINA GERO EZ BADAGO GIRO ONA ZAILA DA LAN EGITEA"**

txaranga eta saiatzen gara kalitatezko abestiak egiten". Kide bakoitzak bere funtzioa zein den badakiela eta horretan "hobera" egin dutela azaldu dute. "Helburuak argi ditugu". Taldean aldatetaren bat egon da, baina orokorrean hasierako musikariak daude.

"Kuadrilla" bat direla esan dute ere, lagun talde bat. "Entseuetatik kanpo elkartzeko gara ere" eta talde giro hori "oso garrantzitsua" da: "Musikalki asko prestatu zaitezke, baina gero ez badago giro on bat zaila da lan egitea. Gure kasuan sekulako harremana dugu denek". Jendeak, ikusleak, giro ona ikus dezake.

Elektrotxaranga batean aritzeaz, eta, hain zuzen, Elektrokela kidea izatearen gauzarik onenetarikoaz galdetuz, "niri gehien gustatzen zaidana herri berriak ezagutzea da, herri batzuk Elektrokela jotzen dutenak ezagutzen ditut, bestela ez nituzke ezagutuko. Hori oso polita da", erantzun du Iruña Guinea. Herriak ezagutzea eta bertan ezagutzen duten jendea ere aipatu dute Ekain eta Hodei Alegrek. Hodei: "Oso jende jatorra ezagutu dugu urte hauetan. Adibidez, aurrekoan auzo batean egon ginen eta jendea oso-oso jatorra zen". Oso gertuko jendea. Batzuetan herriak eta festak "nahi baino gutxiago" ezagutzen dituztela esan dute.

"Furgoneta deskargatzea!" esan dute hiru kideak aho batez elektrotxangan aritzearen alde txarrak aipatuz. "Kontzertutik oso berandu iritsi Altsasura eta furgoneta deskargatu behar...". Entseguak igandero egiten dituzte, eta hori ere "batzuetan" ez da oso erakargarria: "Furgonetan lotan gelditu, Altsasura iritsi, deskargatu behar, eta hurrengo egunean entseguak. Batzuetan kostatzen da".

Garrote bira prestatzen ari dira, eta dagoeneko agenda "nahiko beteta" dutela esan dute, baina "kontratazioa zabalik" dute. Toki "handietan" jo izan dute. Iruñek sanferminetan egin zutena gogoan du: "Ikaragarria izan zen, hainbeste jende sartuta egotea eta jendea hain animatuta egotea...". Hodeirendako Oñatiko emanaldia izan zen berezia, "jende guztiak bat egin zuten gurekin, jende pila bat zegoen gurekin dantzatzen". Ekainek Hatortxu aipatu du.

# "Punta-puntako landareak dira"

Sakanan ezohikoa den baratza dago Urdiainen. Ez da ez tomate, ez letxuga, ez tipula, ez kuitxo landarerek inondik ere ageri. Propio eraldatutako baratza lorez beteta dago sasoi honetan. Loreak hazi eta saldu egiten baititu Jon Gonzalo Aierbek

Alfredo Alvaro Igoa URDIAIN

## 1 Zergatik loreak eta ez letxugak?

Loradenda dugu, eta proiektu baten baitan, basoko loreekin egindako sorta bat dugu. Urdiainen peoniak haztea erabaki genuen, landareari hotza gustatzen zaiolako. Landareak neguan orria botatzen du neguaz defendatzeko. Erraboila da, 40 urte irauten du.

## 2 Denak berdina dira?

Hiru motarekin probatan gabilta eta, ziurrenik, batekin geldituko gara haren lurrin, lore hosto edo dena delakoagatik. Batzuek ez dute eman. Ongi eman dutenak, kale egin dutenen tokian landatuko ditugu. Holandar batekin harreman handia dugu eta hark jartzen gaitu egunean.

## 3 Beste loreekin proba egin duzue?

Bai. Peonia betidanik ezagutzen dut, hemengo etxeetan izan dute. Europa iparraldetik datorren landarea da. Tenperatura ikerketa egin nuen. Usurbilen jarri behar genuen, baina tenperaturagatik baztertu genuen. Bost gradu baino gutxiagoko mila ordu behar ditugu. Urdiainen badaude, ongi ematen du.

## 4 Zergatik peoniak?

Peonia moztutako loreen erregina da. Garestia da eta ez da asko merkaturatzen. Utzitako baratza berregin eta peonietarako presatatu genuen. Ekologikoa da. Zuhaiaren bat, oso-oso gutxi, eta hortentsiak ere baditugu. Denek royaltya dute, babestuta daude. Loreak moztu ditzakegu, baina erraboiak ezin ditugu saldu. Halakorik ez dago merkaturatzen salgai. Punta-puntako landareak dira zurtoin, aroma...

## 5 Zer ziklo du peoniak?

Landarea bosgarren urtean da ama. Lehen urtean landaretza



Jon Gonzalo Aierbe, lore kultibadorea, peonia sorta eskutan duela. UTZITAKOIA

moztu behar da erraboila ez agortzeko, erraboila egiten joateko. Hiru koloreekin lan egiten dugu: gorria, arrosa-txuria eta laranja. Gainera, goiztiarra, ertaina eta berantiarra ditugu. Horrela, loratze tartea hilabetekoa da. Hau da, orain txuri batzuek bukatu dute lorea ematez, eta ertainarekin ari gara. Lore begitan dugu berantiarra. Lore uzta maiatzaren 3an hasi genuen eta garagarriaren 5ean edo bukatuko dugu. Negua iristean landaretza galduko du eta erraboila lurpean geldituko da. Martxoa hasieran begiak sortzen hasten da. Hortentsia garagarrietik irailera arte dugu.

## 6 Zein abantaila du loreak hazteak?

Hozkailutik ez pasatzeak, ingurumena babesteaz aparte, landareak usaina ez galtzea dakar.

Hozkailuak usaina "herdoildu egiten" du. Eta loreen ibilbidea moztzen du.

## 7 Zer lan du?

Ez dugu ez kimikorik, ez intsektizidarik, ez fungizidarik erabiltzen. Hartzitutako ongarrria botatzen diogu. Guk erraboi kopuruaren alde egin dugu, ez zurtoin kopuruaren alde. Belar txarrak kentzen ditugu, horretarako, oihala zabaldu dugu lurrean. Ez du ur handirik kontsumitzen. Tanta jario bidezko ureztatzea jarria dugu. Joan zen urtean bitan ureztatu genuen.

## 8 Nola egiten da loreen uzta?

Lore begia dagoenean, zurtoina dagoenean behetik moztzen da. Moztean oso itxita badago ez da zabaltzen eta galdu egiten da. Begia pixka bat zabalik dagoenean moztu behar da. Egunean moztu

tutakoa egunean dendara eramaten dugu. Salmentarik ez balego, loreak itzalean eta izotza duten pertzetan egoten dira.

## 9 Nola merkaturatzen duzue?

Denda dugu. Gauza handiak dekoratzen ibiliak gara. Sortetako berdeak direnak gureak dira. Usurbilen eta Urdiainen zuhaixkak ditugu eta bietako tenperatura aldatzarekin jokaten dugu eta loraketa bi hilabete ere luzatzen dugu. Lorezaintzatik gatoz (Eltxumendi, Añezkar) eta ezagutzak loradendara aplikatu ditugu.

## 10 Merkaturatzen dago?

Jendeak kontzientziatu beharra du loradendan ohikoan erosten duen lorea atzeritiko etorri dela. Bide asko dago. Gure

ekoizpena izatea erabaki genuen, funtsean, naturala zer den nabari delako, naturalak askoz ere gehiago irauten duelako, eta beste zentzu bat emateko. Gehienak erosi eta saldu egiten du. Guk naturala dugu oinarri.

## 11 Lore hazkuntza hasi nahi lukeenak zer egin beharko luke?

Prestakuntza ikastaroren bat egin beharko luke. Eta egin behar duenaren ideia argia izan beharko luke; lehenik salmenta non eta nola egin aztertu beharko luke. Gu ongi gabilta, zuzeneko salmenta egiten dugulako denda eta azoketan. Ekoiztu eta saldu egiten dugu. Horregatik, aukera berezienen alde egiten dut, gure erraboila ikusgarria da, etxeko marka da.

# FESTETARAKO DENA PREST?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
[www.gkomunikazioa.eus](http://www.gkomunikazioa.eus)  
 Foru plaza, 23-1. Altsasu